

Herririk Herri |4|
Euskara Planaren "baliabide falta"
salatu du Durangoko Talde Mistoak

Ekonomia |10|
Produktu eta zerbitzuen erosketa-taldea
osatu du +Dendak elkarteak asteon



Berbaz |9|
Koldo Mendez: "Errepublikaren
aldeko iritzia aldarrikapen bizia da"

Eskola berria egiteko lanak lehiaketara


Atxondo • Jaurlaritzak eskola berriko obrak lehiaketa publikora atera ditu. Eskolako arduradun eta gurasoek pozik hartu dute albistea. Eraikin berriko 1.580 metro koadroak hiru solairutan banatuko dituzte.

2

Durangaldeko txapela jantzi zuten Amurizak Berrizen

KULTURA • Joan zen zapatuan, Berrizko frontoia lepo bete zuten Durangaldeko bertsolari txapelketaren finala entzutera batutakoek: Miren Amurizari jantzi zion Kristina Mardarasek txapela.

13



• **Izurtza**
Herri ordenamendua nork berrikusi erabaki du Udalak

3

• **Mallabia**
UEMA Eguna ekainaren 12an antolatuko dute

6

• **Elorrio**
Nizeto Urkizun haurrentzako parke bi eraikiko dituzte

7

Jaurlaritzak Zalloventaren zabalkundea galarazi du

Ustiapena zabaltzeko proiektua 2002tik tramitatzen dabilela azaldu du Jaurlaritzak

"Legearen arabera espazio naturaletan ezin da ustiapenik egin", dio Jaurlaritzak

Ustiapena amaitzean ingurua berreskuratzeko proiektua martxan jarri beharko du

2



Gerediaga elkarteak: Txelu Angoitia

Eskualdeko ezpatadantzariak bihar Abadiñon

Abadiño • Gerediaga elkarteak 38. Ezpatadantzari Eguna antolatuko du zapatuan Abadiñon. Durangaldeko zazpi herritako dantza taldeak 17:00etatik aurrera elkartuko dira.

Dantzaldia 19:00etan eskainiko dute. Emanaldiaren ondoren lagun arteko afaria prestatuko dute probalekuan. Ansozregi taldearen erromeriak girotuko du afalostea.

6

Altzariak Dekorazioa

Bilbo etor. 9 behea
48250 Zaldibar
Tel.: 946 22 50 74
maderlan@orange.es

maderlan

HERRIRIK HERRI >

MAÑARIA

Zalloventaren zabalkundeari ezezkoa eman dio Eusko Jaurlaritzak

Baimendutako proiektua amaitutakoan instalazio guztiak desegin beharko ditu harrobiak

Eusko Jaurlaritzaren ebazpen batek Zalloventa harrobiaren zabalkundeari ezezkoa eman dio. Jaurlaritzako iturriek aditzera eman dutenez, "espedientea Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailean 2002an aurkeztu zuten eta ordutik erabakia hartzeko egonda". Aralarren eskariz Bernabé Unda sailburuak Ingurumen Batzordean azalpenak eman zituen joan zen barikuan Industria eta Energiako sailburuorde Xabier Garmendia eta Energia eta Meategien zuzendari Oskar Zabalarekin batera.

Zalloventa SA enpresak ustiapen baimena dauka 1998ko maiatzen 16tik. Ondoren, 2004an gaur egun indarrean duten baimena erregularizatu zuten. Harrobiak proiektu bi ditu. Bata 1998an onartua dago eta ingurumen-inpaktuko aitorpena dauka: "Proiektu horrekin jarraitu ahal izango du harrobiak baimendutako proiektua amaitu arte". Jaurlaritzatik diotenez, "ezin izango dute emakidaren luzapenik izapidetu edo baimendu, ezta baimendutako proiektuaren inolako aldaketarik ere". Ustiapena amaitzen dutenean baimena duen enpresak ingurua berreskuratzeko proiektua martxan jarri beharko du eta instalazio guztiak desegin.

Beste proiektua 2002tik tramitatzen dabilza eta ustiapena zabaltzea eskatzen du. Proiektu horri ezetza eman diote. Jaurlaritzak azaldu duenez, martxoaren 11n onartutako Natura Babesteko Legeak "espazio naturalen



Zalloventa harrobia Eskubaratz mendiaren magalean dago, Urkiolako Parke Naturalaren mugan.

Ustiapena zabaltzeko proiektua 2002tik tramitatzen dabilzala azaldu du Jaurlaritzak

mugetan meatze-ustiapenikez ingo dela martxan jarri" onartu zuten eta horren arabera hartu dute erabakia. "Araudi hori aplikatuz, Industria Sailak ebatzi du ezin izango dela Zalloventa enpresak aurkeztutako beste ezein proiektu baimendu".

ATXONDO

Eskola berria egiteko lanak lehiaketara ateratu ditu Jaurlaritzak

2012-2013 ikasturterako eraikin berria eginda egongo dela aurreikusten dute

Beharginak lanean ikusteko irrikitan daude Atxondoko eskolako irakasle eta gurasoak. Izan ere, aspalditik dabilza eskola berria eraikitzeko eskatzen. Iaz udalak

Eusko Jaurlaritzari obra egiteko baimena eskatu zion. Maiatzaren azkenetan eman du pausua Eusko Jaurlaritzak; dagoeneko obrak egiteko lanak lehiaketara ateratu



Txintxaunak dauden lur sailean egingo da eraikin berria

ditu, eta 2012-2013 ikasturterako prest izango da eraikin berria.

Geroago eta ume gehiago daudelako, azken urteotan leku arazoak dituzte eskola zaharrea. Eraikin berriak hiru solairu eta 1.580 metro koadro izango ditu, eta bertan zazpi ikasgela, liburutegia, jantokia eta gimnasioa egongo dira. Eraikin zaharrea Haur Hezkuntzako umeen gelak egongo dira lanak amaitutakoan. Eraikin berria eskola zahararen alboan eraikiko da, orain txintxaunak dauden lur sailean. Txintxaunak eliza eta eskola artean dagoen parkera eroatea aurreikusi du udalak.

Txiki geratzen dabil eskola zaharra; aurten 74 ikasle daude, eta datorren urtean 79 egotea aurreikusten dute

Eskolan pozik hartu dute albistea. Aurten 74 ikasle daude bertan, eta datorren urtean 79 egongo dira. Ikasgela batzuek eskola alboko etxeetan egokituta daukate, eta neguan batez ere arazoak izaten dituztela azaldu dute, jolasordurako eta bazkaltzeko ordu-rako ez dutelako aterperik. ■ A.U.

Iaz eskatu zuten obra egiteko baimena; ondo bidean, 2010 amaieran ekingo diote

Uztailaren 5etik 30era izango dira Udalekuak

Dagoeneko 45 ume eman dute izena Marixurrike Aisialdi Elkar-teak antolatutako herri udalekuetan. Uztailaren 5etik 30era izango dira, eta aurten, berrikuntza legez, asteka apuntatzeko aukera eskainiko dute.

IURRETA

Elkartasun proiektuak laguntzeko diru-poltsa

Proiektuak ekainaren 30etik aurrera aurkeztu ahalko dituzte Gobernu Kanpoko Erakundeek

Garapen bidean edo pobrezian bizi diren herrialdeetan lanean diharduten Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak diruz laguntzeko 10.000 euroko diru-atagalorde du Udalak aurten, beti ere Iurretaz hartu-eman dute elkarteei zuzenduta.

Ekainaren 30etik aurrera aurkeztu ahalko dituzte elkar-teek euren proiektuak. Udalak azaldu duenez, osasunagaz, hezkuntzagaz, genero ikuspegiagaz, giza eskubideekin edo parte hartzeagaz lotutako proiektuak lehene-

Atxondon bertan jarduera ugari egingo dituzte, eta Marixurrikeko kideek azaldu dutenez, jolas kooperatiboak izango dira nagusi. Irteerak ere egingo dituzte Iurretako hipika eskolara, Izaro irlara, Saturrarana eta Donostiako akuariumera. 10 urtetik gorako umeek udaleku finko eta ibiltarietara joateko aukera dute Kimuak elkarteagaz. Ludotekan, eskolan, liburutegian eta udalekuean eman daiteke izena. ■ A.U.

Iaz baino %25 txikiagoa da Udalak lankidetzarako proiektuak laguntzera bideratuko duen diru-poltsa




MALLABIA

Zelai II.a EAJko zerrendaburu hauteskundeetan

Jesus Gisasola "Zelai II"-a izango da datozen udal hauteskundeetan Mallabiko EAJko zerrendaburua. Jeltzaleek maiatzaren 28an egingako batzarrean aho batez erabaki zuten Gisasolaren hautagaitza.

Zelai kirolari ezaguna lanbidez albaitaria da. Orain arte alderdian kargurik izan ez badu ere, "bere herriarekin konpromiso handia duen pertsona" dela azaldu dute EAJtik.

Jeltzaleen berbetan, Zelai "herri-kiroletan Mallabiaren izena mundu guztian ezagutzera eman duen kirolaria da". Zelaik 47 urte ditu. Aizkolaritza arloan marka ugari egin ditu. Herri-kiroletan Gisasola familia osoa ezaguna da. Datorren maiatzeko udal hauteskundeetara "ilusio handiagaz" aurkeztuko dela azaldu du Zelaik. Gainerako hautagaiak laster ezagutzera emango dituztela jakinarazi dute Mallabiko jeltzaleek. ■ J.G.



IZURTZA

Herri ordenamendua berrikusiko duen enpresa, aukeratuta

Abstenitu egin zen EAJ, eta Gobernuaren botuekin onartu zuten lanak Ramiro Mendiburu-ri esleitzea

Udako osoko batzar ez-ohikoan, gobernu-taldeko hiru zinegotziren aldeko botoekin onartu zuten joan zen barikuan, herriko berrikuspenera egiteko lanak Ramiro Mendiburu enpresari esleitzea.

Zinegotzi jeltzale bi falta izan ziren batzarrean, eta Oskar Zarrabeitia bozeroaleak azaldu zuen zergatik abstenitu zen bere alderdia: "hautaketa prozesurako gure taldeak egin zituen proposamenak ez zituzten onartu, eta esleipena egiteko udalekoaz gainerako beste arkitekto baten azterketa eta iritzirik ere ez dute eskatu", azpimarratu zuen Zarrabeitiak.

Bost enpresak aurkeztu zituzten Izurtzako Arau Subsidiarioak berrikusteko euren proposamenak



David Cobos, Pili Garitagoitia, Oihana Onaindia eta Itziar Garitagoitia prentsaurrekoan.

Euskara "herrien bihotzetara" eroango du UEMA egunak

Bihotz batez irudikatu eta 'ein eingou' leloagaz jantzi dute hilaren 13ko jaiak

Ekainaren 12an UEMA — Udalherri Euskaldunen Mankomunitatea— jaia ospatuko dute Mallabian. Eguaztenean egin zuten ekitaldien aurkezpena eta "inguruko elebidunei eta, zergatik ez, elebakerrei" gonbita egin zien Itziar Garitagoitia Orraitio euskara elkarte-kideak.

Oihana Onaindia Mallabiko kultura zinegotziak mankomunitatearen sorrera ekarri zuen gogora: "19 urte igaro dira 18 uda-

lerri euskaldunek mankomunitatea sortu zutenetik". Harrezkero, "gogotsu, baina oztopoz beteriko bidea" gainditu behar izan dutela azaldu zuen. Hala ere, orain-

Aurrerapenak egon diren arren oraindik "lan asko dago egiteko" antolatzaileen ustez

dik "urrats gutxi" batzuk besterik egin ez badugu ere "euskararen normalkuntzan aurrerakuntzak egin direla" esan zuen: "Baina ez da nahikoa. Gure helburua lortzeko, indarrean dagoen hizkuntza politika arautzen duen marko juridikoa aldatu behar da".

UEMA egunean, besteak beste, Xiba jokoak eta Erlazi eta Damu Dot taldeen kontzertuak egongo dira

David Cobos Atxondoko alkateak azken hiru urteetan UEMARA herririk gehien batu den eremua Durangaldea dela gogoratu zuen, "Mallabiko batzar nagusien ondoren Izurtza ere batuko baita".

UEMA egunari dagokionez, hilaren 12an Xabier Mendigureni bere ibilbideagatik egingo dioten aitortzagaz hasiko dituzte ekitaldiak. Bazkari herrikoien ostean kantu saioa egingo dute. 12:00etan Xiba jokoak egingo dituzte plazan; 18:00etan eta 23:00etan Erlazi eta Damu Dot taldeen kontzertuak daude plazan. Gaztetxoentzako ere hainbat ekimen prestatu dituzte. ■ J.D.



OTXANDIO

Erromeria eta DJ saioa, bihar, Gaztetxean

Herrixe Auzolanaz Eraiki izenegaz musika kontzertuak antolatu ditu biharko Otxandioko Gazte Asanbladak. Ekimenaren izenak argi uzten duen moduan, gazte asanbladako kideek auzolanean eta elkartasunean sinesten dute. Hala, ezusteko bat izan duen lagun bati elkartasuna erakusteko jaia antolatu dute biharko.

Afaria egingo dute, 21:30ean, Kementsu elkarteko txokoan. Ondoren, hainbat kontzertu antolatu dituzte gaztetxean, 22:30etik aurrera. Lehenengo Jaik taldea ibiliko da zuzenean. Ondoren erromeria antolatu dute eta amaiteko DJ Gaztetxeroak girotuko du zapatu gaua.

Bestalde, gazte asanbladako kideak berrikuntzak egiten dabilta gaztetxean. Besteak beste, lehenengo solairuan edariak zerbitzatzeko dituzten barra eraberritzen ari dira. Santamañetarako prest izatea espero dute. Hain zuzen, dagoeneko hasi dira jaietan antolatu ohi dituzten ekimenen inguruan batzarrak egiten eta ideiak proposatzen. ■ J.D.

DURANGO



Talde Mistoak "hainbat hutsune" ikusten dizkio Euskara Planari.

Euskara Plana garatzeko "baliabide falta" salatu dute

Talde Mistoaren ustez "urte bian ez da plana gauzatzeko politika eraginkorrik aurrera eraman"

Euskara Planaren "beharrizana" argi duten arren, bere sasoiari, txostena irakurri eta "hutsuneak antzeman" zituztenez, Talde Mistoak plana onartzeko bozketan abstenitzea erabaki zuen. Hutsuneen artean plana aurrera eramateko "baliabide pertsonalen gabezia" zegoen. Horren haritik, asteon gogoratu dutenez, "normalkuntza teknikariaren irudia aldarrikatu dugun arren, itzultzaile teknikari baten lanpostua onartu da". Talde Mistoaren ustez, teknikari honek "ez du plana martxan ipiniko", bere lana testuak itzultzea delako eta "langileek erdaraz funtzionatzen jarraituko dute".

Hainbat gabeziaren artean salatu dute, besteak beste, oraindino batzordeetako eta osoko bilkuretako dokumentazio gehiena "erdara hutsez" jasotzen dutela.

Azken urte bietan "ez da Euskara Plana garatzeko aurrerapausurik eman" eta, beraz, Talde Mistoaren ustez, "udal honek euskarari bigarren mailako izaera ematen dio inpunitate osoz eta lotsa barik": "EAJ, PSOE, Aralar eta EBK espainolez funtzionatzen duen udal eredu bikaina lortu dute beren arduragabekeria politikoari esker".

Euskararen ordenentzagaz ere berdin gertatuko den beldur dira: "Argazki polit eta lelo handiekin onartu eta euskararen aldeko benetako lanketarik ez egiteko" susmoa hartzen diote. ■ J.D.

"Udal honek euskarari bigarren mailako izaera ematen dio inpunitate osoz"

ZALDIBAR

Diru atal handiena Bilbo etorbidea berriztatzeke da

Zaldibarren aurrekontuen alde EAJ, PSE-EE eta independenteek bozkatu dute, EAK berriz kontra

Zaldibarren joan zen barikuko ohiko bilkuran 2010eko aurrekontuak onartu zituzten aldeko zortzi boto eta kontrako hirurekin. Alde EAJk, PSE-EEK eta independenteek bozkatu zuten, kontra berriz, EAK. Zaldibarko Udalak 4.214.232 euroko aurrekontua izango du. Idoia Mendiogarai alkateak azaldu duenez, aurrekontua iaz baino %2 handiagoa da gastu arruntak gutxitu ditugulako". Inbertsioetara 1.747.225 euroko diru atala bideratuko dute.

Inbertsioak

Inbertsio handienak, Zaldibarko alkateak azaldu duenez, "Bilbo etorbidean urbanizazioa berriztatzeke, hau da, espalo berria ipini, saneamendua egin, bide bakarreko ibilbidea eta aparkalekuak alde batean ipintzea eta N-634 sarbidea hobetzeko 200.000 euroko diru atala bideratuko dugu.

Gainera, industrialderako azken fasea egiteko azterketa egin eta lanak hasteko 135.000 euro bideratuko ditugu". Haur eskolara berriz, 120.000 euro azpialdea saneatu eta plataforma ezartzeko. Jose Andres Urizar, EAKo zinegotziaren arabera, "haur eskolen modulua bi urte dago erabili gabe, eta gainera dirua ordaintzen". Alka-

teak dioenez, "behin plataforma ezarrita modulua ipini eta datoren urtean erabiltzeko egongo da".

Zaldia plazara sarbidea eta berritzeko proiektua egitea ere aurrekontuan jasotzen da. Lanak "faseka egingo ditugu", dio Mendiogarai.

EAK kontra bozkatzeko arrazoiaren artean Jose Andres Urizar zinegotziak azaldu duenez, "guretzat garrantzitsuak diren proiektuak aurrekontuan ez dira sartu, herriarentzat ezinbestekoa den

EA: "Guretzat garrantzitsuak diren proiektuak ez dira aurrekontuetan sartu"

kultur etxearen inguruan ez da ezer aipatzen". Idoia Mendiogarai alkateak dioenez, "denok ikusten dugu kultur etxea beharrezkoa, baina orain ez dago dirurik hori egiteko".

Udaletxeko lanen gastua "bikoiztu" egin dela dio EAK. PSEk ohiko bileran aipatu duenez, "hori orain urte bi erabaki genuen eta egoera bestelakoa zen; orain balitz ez genuke egingo". EAJk bat egin du iritzi honekin. ■ G.A.

BERRIZ

'Kirolari ateak zabalik' jardunaldia domekan

Kirola egiteko ohitura piztea da ekimen honen helburua. Hainbat kirol egiteko aukera domekan

'Kirolari ateak zabalik' jardunaldia antolatu dute Berrizen domekan. Kirola egiteko ohitura piztea da ekimen honen helburua. Goizean hainbat kirol egiteko aukera egongo da, futbola, pilota, saskibaloia, spinning-a,...

Mendia gustuko dutenentzat Urbiarako mendi irteera antolatu dute eta goizeko 08:30ean abiatuko dira autobusez. Gainontzeko ekintzak goizeko 10:00etan hasiko dira, orduro eta ordu erdiro, kiroldegian, pilotalekuan eta futbol zelaietan.

Bizkaiko beste herri batzuetan ere antolatzen da 'Kirolari

ateak zabalik' jardunaldia. Bizkaian parte hartzen duten guztiek Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako zozketan parte hartu dezakete eta banatzen diren 116 sarietako bat eskuratzeko aukera izango dute. Horien artean, bidaiak, Eusko Label produktuak eta otzarak izango dira. Zozketa, astelehenean, ekainaren 7an, egingo dute. ■ G.A.

Urbiara mendi irteera ere antolatu dute, mendia gustuko dutenentzat. Autobusa 08:30ean

GARAI

Amaitu dituzte Aiartzako auzobideko lanak

Maiatzean egin dituzte konponketa lanak eta diru-laguntza bidez burutu dituzte

Joan zen astean amaitu zituzten Aiartzako auzobidea konpontzeko lanak. Momoitio auzoan dago bide hori.

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondotik emandako dirua erabili dute egitasmoa aurrera erama-

teko. 34.702 euroko diru-laguntza izan du udalak, eta martxoan adjudikatu zituen lan hauek.

Lantziegokoekin batera

Bestalde, datorren zapatuko bazkarirako izena emateko azken eguna ekainaren 4a da.

'Txiliñak' jaietako kartel irabazlea

Berrizko Asier Virumbrales Amnabarrek irabazi du Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Berak eskuratu du, beraz, 300 euroko lehen saria.

'Txiliñak' izenburupean aurkeztu du kartela. Izan ere, irudiko elementu nagusienetako txiliñak dira, hain zuzen ere, txiliñak eramaten dituen lagunaren zain dauden eta luzaketak egiten dabiltzan dantzariekin batera.

Aurten guztira 12 lan aurkeztu dituzte kartel lehiaketan, iaz baino hiru gehiago.

Berrizko jai batzordeburuak, Karmen Amezuak, azaldu duenez, irudi "freskoa" da, orain arte izan diren karteletatik "oso desberdina", "gaztetan puntu bat islatzen du". "Donien atxa, eta dantzariak agertzen dira, baina momentu lasai baten". ■ G.A.



ART LEKU

www.artleku.com

zeharkalea 9, Durango

Marrazketa, Akuarela, Oleoa
Arte Ederretarako prestaketa,
Kaligrafia Orientalak

uztaila:

Pintura eta eskulanak ingelesarekin

- 7 urtetik 12ra arte
- Ordu-tegiak:
1. taldea: 09:00-10:20 / 2. taldea: 10:30-12:00

ERRAZA: erabilerara samurra, intuitiboa, ez da ingeles maila alturik behar

DIBERTIGARRIA: margozten gozatu eta ingelesean trebatu

Uztailean, ohiko klaseak arratsaldez ere bai



Tel.: 608 93 97 19 • 944 66 81 41

Klase partikularrak

Irakasletzan (atzerritar hizkuntza) diplomatua:


Ingelesa, euskara, matematikak, gaztelania, ingurumena, etab. ematen dira 5-12 urte bitarteko ikasleei.

ordutegia

- Goizeko taldea: 11:00 / 13:00
- Arratsaldeko taldea: 17:00 / 19:00
- Irailean ere laguntza klaseak ematen dira:
 - 17:00etatik 20:00etara
 - Talde txikiak

lekua

Zeharkalea 9 • 48200 Durango



Tel.: 660 78 48 05

ABADIÑO

Auzotik pasakeran kamioiek hartzen duten abiadura handiak kezkatuta

Gerediagatik igarotzean kamioiek hartzen duten abiadura mugatzeko beharra ikusten dute auzoan

A8 autobidearen hirugarren erreila egiteko obran sortutako lur-soberakinak Garain ipini duten hondakin-gira eroateko, Gerediaga auzotik igarotzen diren kamioiek hartzen duten abiadura dela-eta, alkateari euren kezka jakinaraztera hurreratu dira auzotarren hiru ordezkari udalera asteon.

Batez ere bueltan datozean kamioiek hartzen duten abiadura zelanbait mugatu beharra dagoela, eta "berak zeozer egin behar lukeela", adierazi diote auzotarrek alkateari. Obraren arduradunagaz berba egingo dela, eta jarriko dela eurekin kontaktuan erantzun ei die alkateak.

Auzotik igarotzen diren kamioien abiadurari buruzko kezka gainera, bestalde, Matienatik Gerediagara joateko oinezkoendako lurpeko pasabidearen ordezkari errepidean markatu duten behin-behineko ibilbidea "oso arrisku-tsua" dela, eta semaforo baten beharra dagoela adierazi diote batzar berean alkateari.

Bestetik, "kamioien joan-etorriak hasten zirenerako eginda egongo zela zioten oinezkoendako bidea zatika" egiten dabiltzala, eta arekarik egin ez dutenez, bidea garbitu osteko ur-zikinak auzokideen landa eta etxe-atarrietan amaitzen dutela salatu dute. Lanek eragindako zarata eta ziki-



Hamalau hilabeteko epea dute lur-mugimenduok.

nez gainera, "lupetza guztiak ez ditugu zertan gure etxe atarrietan irentsi", diote auzotarrek. Ura

Garbitu osteko ur-zikinak auzokideen landa eta etxe atarrietan amaitzen dutela salatu dute

"behar bezala bideratu dezatela" eskatzen dute horregatik.

Auzotik igarotzen den kamioi kopurua, sortzen duten zarata eta zikinkeria "sufritu beharraz" zelanbait jabetuta zeudela diote auzotarrek. Azken bi hileetako lanen ondorioz, baina, alkateari mahai-gaineratutako kalteak "jasateko

ez" daudela prest diote auzotarrek. Kamioien abiadurari eta urak bideratzeari dagokionez hamabost egunen buruan konponbiderik ez badago, mobilizatu egingo direla aurreratu dute auzotarrek.

Goizeko 08:00etatik 19:00ak arte auzoan 50 kamioi dabilta asteotan eten bako joan-etorrian.

"Eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzeko" batu ziren zapatuan



A. Dominguez

Eskubide zibil eta politikoaren "bortxaketa eten beharra" dagoela adierazteko zapaturako antolatu zuen Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak goiko argazkian jasotako Askatu Rock ekitaldia: "presoek jasaten dituzten torturak, urrunketak eta eskubideen urraketak amaitu beharra" aldarrikatzeko, egun osorako programa antolatu zuten Abadiñon: eztabaidak, enkar-teladak, bazkaria eta kontzertuak egon ziren besteak beste.

Ezpatadantzari Eguna antolatu du biharko Gerediaga elkarteak

Garai, Iurreta, Durango, Otxandio, Abadiño, Berriz eta Izurtzako dantzarien emanaldiak

Ekainaren 5ean, bihar, Abadiño-ko probalekuan egin du Gerediaga Elkarteak 38. Ezpatadantzari Eguna ospatzeko hitzordua. Durangaldeko zazpi herritako dantzariak batuko dira 17:00etatik aurrera ospatuko den Ezpatadantzari Egunean.

Herri bakoitzeko dantza taldeei argazkiak egin ostean 19:00etan egingo dute emanaldia. Durangaldean mendeetan gordetako *Dantzari dantza* eta *Bizkaiko Ezpatadantza*—ondo-

Durangaldeko zazpi herritako dantza taldeen emanaldia egongo da 17:00etan

Emanaldien ostean, lagun arteko afaria eta erromeria egingo dituzte probalekuan



lazko edizioan hartutako argazkia. Gerediaga Elkarteak Txelu Angoitia

ren, XX. mendearen hasieran, Bizkaiko gainontzeko herrietara zabaldutakoak—eskainiko dituzte lehenengo, eta soka-dantzagaz amaituko dute emanaldia.

Ezpatadantzari Eguna amaitzeko, bestalde, lagun arteko afaritarako deialdia egin du Gerediaga Elkarteak probalekuan bertan. Afalosterako, Ansorregi taldeagaz erromeria antolatu dute, bestalde, 23:00etatik aurrerako.

Garai, Iurreta, Durango, Otxandio, Abadiño, Berriz eta Izurtzako hainbat dantza talde-tan diharduten dantzariak batu-ko dira Abadiñon, bihar.

AC/DC

2 sarreren zozketako irabazlea:

Aner Garitaonandia
(Axpe-Atxondo)



ZORIONAK!



Alluitz, 3 behea

Durango

Tel.: 94 603 27 50

www.rockizarra.com





ELORRIO

Arrizabal elkartearen izeneko enpresari esleitu dizkiote Nizeto Urkizun haurrentzako parke bi egiteko lanak. Asmoa lanak lehenbailehen hastea da eta 45 egunen barruan eginda egon beharko dute. 119.000 euroko diru-atala bideratu dute asmo hori gauzatzeko eta hartutako erabakiagaz gustura dago Gobernu Taldea: "Proposatutako diseinua asko gustatu zaigu, kalitateko materiala erabiliko dute eta gainera mantentzen aldetik ez du aparteko lanik eskatzen", azaldu du Niko Moreno alkateak.

Nizeto Urkizun hegoaldean egingo duten haurren parkea 2-8 urte arteko gaztetxoek zuzenduta egongo da eta iparraldekoa nagusiagoentzat izango da.

Azken boladan etxebizitza berriak egin dituzte zonalde hartan eta ondorioz "haurrendako parkeen beharrezko zegoen, dagoeneko badaudenak urrun samar geratzen direlako". ■ J.D.

Nizeto Urkizun haurrentzako parke bi egiten hasiko dira



Lanak hasi eta 45 egunen barruan eginda egongo dira parkeak.

Emakume Eskolaren jaia elkartrukerako gune

Ikasturte honetan antolatutako ikastaroetan parte-hartzea handia izan dela azaldu dute

Emakume Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia gaur 19:00etan Ateneoan antolatuko dute. Kontzertu laburra eskainiko dute gitarra eta harpa doinuarekin. Ondoren ikastaroei buruz eztabaidatuko dute luntx-merienda batekin lagundutako berriketaldian. Emakume Eskolak hainbat helburu lortzeko tresna izan gura duela azaldu dute antolatzaileek.

Ikasturtean antolatu dituzten ikastaroei "harrera ona" izan dutela dio Maitane Iribar berdintasun teknikariak. "Diskriminazioari buruzko gogoeta egin gura dugu. Ekitaldian ikastaro askotan ibilitako emakumeak batuko direnez, iritzi piloak trukatu dituzte. Elkartrukerako gunea da eta emakumeen arteko sareak sortzea garrantzitsua da". ■ J.G.

Senideei presoak bisitatzen joateko laguntzen deialdia

Espetxeetan dauden preso politiko senideentzat garraiorako diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituzten oinarriak onartu ditu asteon Gobernu Batzordeak eta deialdia zabaldu du. Aurten horretara bideratu duten diru-atala 47.500 eurokoa da. Laguntza kilometro bakoitzeko 19 zentimo-

koa da, jakinarazi dutenez. Kartzelan dauden preso politikoekin kopurua handitu dela eta urte amaieran balorazio bat egingo dute bideratutako diru-atala nahiko den ala ez ikusteko. Gaur egun, 14 preso elorriar daude Espainiako kartzelatan; bada Portugalen eta Frantziako dagoenik ere. ■ J.D.

47.500 euro bideratu dituzte. Gaur egun 14 preso elorriar daude, batzuk Portugalen eta Frantziako

Ferixa Nausiko kartel lehiaketa abian da

Ferixa Nausiko jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa hasi dute. Kartelak 'Ferixa Nausikoak 2010', 'Elorrio' eta 'irailak 3-12' berbak eta zenbakiak izan beharko dituzte. Lanak aurkezteko epea ekainaren 15ean, 14:00etan, amaituko da.

Irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du. Partaide bakoitzak gura adina kartel aurkeztu ahaliko du, baina neurriak zehaztuta daude: 70/50 zentimetrokoak izan beharko dute.

Lanak ekainaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira eta Iturri kultur etxean ikusgai ipiniko dituzte

Aurkeztutako lan guztiak Iturri kultur etxeko sarreran ikusgai egongo dira ekainaren 21etik uztailaren 10era eta nahi duten guztiak botoa emateko aukera izango dute. Epaimahaia udaleko eta jai batzordeko kideek eta arte grafikoko profesionalak osatuko dute. ■ J.D.

DURANGO

Julene Azpeitia lehiaketako irabazleen izenak

Durango Udalak jakinarazi du nortzuk diren Julene Azpeitia sariketako irabazleak. Mailatan banatu dute lehia: LHko 5. eta 6. mailak, DBHko lehen zikloa, DBH 3. eta 4. mailak, eta 17-18 urtekoena (atal honetan saridunik ez), eta 18 urtetik gorakoa. Sari nagusiez gainera, akzesitak ere banatuko dituzte.

Ondokoak dira sarituak, arloz arlo. Ipuinetan: June Murua, Lucia Lorenzo, Iñigo Aranburu, Martin Loizate, Paule Alzaga, Arnaitz Iriondo, Maialen Galarza eta Josu Unzueta. Olerkietan: Saioa Hernando, Irati Arrieta, Paula Castillo, Eneko Sagardoy eta Aitor Albiztur. Bertsoen alorrean: Julene Sada, Igor Uruburu, Eneko Sagardoy eta Iñigo Legorburu. Liburu sortak jasoko dituzte gaztetxoek. Sari handiena 600 eurokoa da.

Kulturen arteko irratitailerrak garatu ditu Durango Irratiak

Durango 16 eta 20 urte arteko 13 gazte parte hartu dute Immigrazio eta Gazteria Sailak eta Durango Irratiak elkarlanean antolatutako irratitailerretan. Helburua kulturen arteko topagune bat sortzea zen, hainbat jatorri eta kulturatako gazteekin elkarlanean sendotzeko gunea eratzea. Euskaldunetz gainera, Senegal, Bolivia eta Peruko gazteek parte hartu dute, besteak beste. Elkarlanean hainbat elkarrizketa eta erreportaje egin dituzte eta ekainaren 5ean eta 6an eskainiko dituzte 11:00etatik aurrera.

Irratia hedabideetako hausnartze, adierazpen eta sormen moduak lantzeko eremua izan dela adierazi dute antolatzaileek eta, era berean, ahozko adierazkortasuna eta talde-lana lako eremuak lantzeko balio izan duela.

Irakaslearen lanaren gainean jardun du Jabi Arbeok



Jabi Arbeok 30 urte daramatza irakaskuntzan lanean eta hitzaldia eskaini zuen eguazten arratsaldean Ibaizabal ikastolan. Hitzaldian hainbat ideari buruz berba egin zuen, afektibitateari buruz, esaterako. Arbeoren esanetan, afektibitatearen arloa da berak gehien lantzen duena, izan ere, "irakatsitako edukiak gehien ahaztu egiten dira, baina irakasle eta ikaslearen artean sortutako harremanak iraun egiten du".

Irakasleek ikaste prozesuaren inguruan hausnartu behar lukeela ere uste du. Irakasten duten programa egokia ote den galdetu zuen eta programak ezarritako guztia irakatsi behar den. Ildo horretatik, bakoitzak bere irizpideak ezarri beharko lituzkeela azaldu zuen.

IBILALDIAK PONIAN

RENAULT GAURSA IURRETAN

(10.00etatik 13.00raino)

Dohainik familia guztiarentzat!

Ekainaren 5ean larunbata berezia



Aukerako ibilgailuetan prezio bikainak

STOCKEAN 100 IBILGAILU BAINO GEHIAGO

RENAULT OCASIÓN

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

GAURSA ARRIANDI, 12 - IURRETA. TEL: 94 620 33 00 www.gaursaautoak.com



IRITZIA >

Gutunak @

Leginetxeko baserri okupatua desalojatzeko saiakera maiatzaren 31n

Zornotzako Leginetxe auzoko baserri okupatutik, honako gutunaren bitartez, salatu gura dugu maiatzaren 31n bertatik gu kanporatzen saiatu izana. Ertzaintzaren lau auto, ofizialak zein kamuflatuak, eta Adif-en beste bat gerturatu ziren, 20:00ak aldera, asmo ez oso onekin. Baserrira hurbiltzen ari zirela ikustean, bertan zeuden hiru lagun teiltura igo ziren kanporatzea saihesteko asmoz. Bertatik jaitsiko ez zirela ikusita, baserriko ekintzaileei "delitu ekologikoagatik" jarritako salaketaren berri eman zieten ertzainez; antza denez, baserriko atarian jarritako ohol batzuk direla eta. Hogei minutu inguru emanda, ertzainek eta Adif-eko ordezkariak etortitako bide beretik alde egin zuten.

Guk hemendik Adif-en hipokrisia salatu nahi dugu, "delitu ekologikoagatik" salatzen gaituzten horiek berberak baitira tunelak, hondakindegia, pistak, bidezubiak eraiki, baserriarrak desjabetu eta Amalurri kalte konponezinak eragin dizkiotek.

Modu berean salatu nahi dugu bertatik pasatu zen pertsona bat identifikatu izana, teiltuan zeuden ekintzaileei elkartasuna adierazteagatik.

Erresistentzia baketsu honen aurkako honako ekintzen aurrean, geure helburuak berresten ditugu, okupazio zilegiaren bidez, proiektu antiekoagatik eta antisozial honen aurka egiteko.

Baserrian jarraitzen dugu eta jarraituko dugu desarrollismo basati honen aurka, AHTaren obrak gelditu arte.

Hau guztia salatzeko kontzentrazioa egin dugu ostegun honetan, ekainak 3, arratsaldeko 19:30ean, Zornotzako Erreferendum plazan.

Aldi berean borroka honetan parte hartzerantz animatzen zaituztegu, txandak eginez eta ekintzetan parte hartuz, proiektu honekiko aurkakotasuna erakusteko.

Leginetxe bizirik
AHT gelditu!

Leginetxe baserriko okupazio taldea

EHNE sindikatuari

Elorrioko biztanle taldea gara eta San Anton auzoan bizi gara. Gehienok baserri bizi utzi genuen, baserria geurea ez zelako edo ez zegoelako guretzako lekurik. Orain bizi garen etxebizitzak gure gurasoen lanarekin eraiki ziren eta beste batzuk inguruko enpresenak ziren. Denek dute, ordea, ezaugarri bera, biztanleek lur zati bat erosi zutela nekazari lanei eutsi eta beraien kontsumorako gaiak lortzeko. Durangaldeko nekazaritza lurren zatikako planak nekazaritzarako balio estrategiko handikotzat ditu lur horiek eta 50 urtez landu diren lurak ditugu.

Aurten egingo den hirigintza plan berriak mehatxu argia dakar guretzako. EAE/ANV proposaturiko industrialdea egiten bada orain dela 8 urte SPRI-LUR-ek lur erosketekin hasitako manobra burutuko da. Ekintza ezin hobea da; eurentzat batez ere.

Gure lurrez gain, beste baserri lur batzuk ere badaude. Elorrioko nekazariak ere erabiltzen dituzte eremu hauek abereen janaria lortzeko. Guztira 30 hektareari buruz ari gara.

Planeamendu berriak nekazaritza lurren zati bat desageraraziko luke, baina geroari begira, ia dena eraldatzeko bidea zabalduko du. Horrela, planoek dioten bezala ipiniz gero nekazaritza aberastasuna eta urteetan landutako lurak ezabatuko dira.

Jende arrunta gara eta lan egin ostean gure ortuei ekitea gusatzen zaigu. Bizimodu hau bermatzea ona izango litzatekeela pentsatzen dugu. Gaur egun agroekologia eta elikagaien subiranotasuna askotan entzuten ditugu, guk ez dakigu zehatz zer diren, baina uste dugu gure lurak eta jorrazteko lana ezinbestekoak direla lurren defentsan. Horrela espekulazioa baretzea lortuko genuke eta "lurren defentsa" hitzak ez lirateke hitz hutsak izango.

Azkenik, gure harridura, EHNE sindikatuak aurkeztu dituen alegazioetan ikusi dugunagatik. Alde batetik lurra defendatu behar dugula diote. Baina Baserri Bizian onartzen dute industria poligono bat egitekotan dentsitate gehien duena izan beharko litzatekeela. Hau industrialdea eraikitzeari bai esatea da, jakinik Elorri gura adina hektarea dagoela bete barik, bertan industria jartzeko. Ez dugu ulertzen zelan EHNE ez duen jarrera aldatzen; nekazari guztion aurka doa eta ez gure aurka bakarrik, ze lurren defentsa zerbait unibertsala dela uste dugu.

Nabaria da ez dela jokatu behar proposamenak nork egiten dituen arabera, baizik eta, proposamena bera kontuan hartuz baino. Gure gonbita EHNEri nekazal lurak defendatu dituzan eta Elorrioko Udalean (EAE/ANV-EAJ-PSE) egiten ari diren plangintzari gogor aurre egiteko eskatzen diogu.

San Anton auzoko 22 bizilagun

Klik batean @



Belar botatzea

Durangar batek Fauste kaleko zanga ondotik ateratako argazki hau bidali digu. Anbotoko irakurleak salatzen duenez, "belarra mozten dutenean batu beharrean kunetara botatzen dute". "Ez da belarra bertan uzten duten lehenengo aldia", azaldu du.

Sei hankako mahaia



Carmen Sampedro EA

Udako jaiak

Udaberrian gaude, laster uda helduko da eta udarekin batera gure herriko eta beste herri askotako jaiak helduko dira.

Udako jaiak oso politikak dira, jende asko kaleetan, umeak barraketan alai-alai, zelako giro jatorra dagoen.

Urteak pasatzen dira baina nik ez dot ilusioa galtzen, gauzak ez dira berdinak, noski, ni neu, nire lagunak, eta jaiak ere, aldatu gara, baina geure barruan zer edo zer mugitzen da, gazte sentitzen gara berriro.

Ni neu, nire lagunak eta jaiak ere, aldatu gara, baina barruan zer edo zer mugitzen da

Zenbat oroimen, lehenengo dantzak mutilekin, lehenengo gau irteerak eta gaupasak...

Sasoi bakoitzak bere alde ederra dauka; haurtzaroen, barrakak, gozokiak; gaztetan, mutilak, berbenak, lehenengo kalimotxoak; orain lagunekin afariak, dantzak, oraindik gaupasaren bat, eta seme-alabekin disfrutatzea.

Aurtengo jaiak bereziak izango dira, aurtengoak direlako. Bizi izango direnak beti dira onenak, pasatu eta gero euren oroigarriak utziko dizkigute eta datorren urtekoekin amets egingo dugu.

Ez dakit egungo krisiak ondorioz izango duen aurtengo jaietan, baina denok ondo pasa dezagula espero dut. Urtea luzea da eta horixe da momentua arazo eta tristetasun guztiak baztertzeko, kalera irteteko, barre egiteko, eta herriko bizilagun guztien artean harremanak indartzeko.

Jai zoriontsuak opa dizkiet herriko denei eta kanpotik gurekin egotera etorriko diren guztiei.

Ez dakit krisiak ondorioz izango duen jaietan, baina, denok ondo pasa dezagula espero dut



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko ekainaren 4a - 9. urtea - 376 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta

Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso

eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello

Mugarza, Itsaso Esteban, Markel

Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma

Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Aitor Duñabeitia.

Argazkilariak: Ana Dominguez, Kepa

Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >

“Errepublikaren alde jende asko dago; ezin dute gure iritzia isildu”

Bilbon monarkiaren kontra oihuak egiteagatik atxilotu zuten joan den astean Koldo Mendez PSE-EEko zinegotzia.



Koldo Mendez •

- Berrizko PSE-EEko zinegotzia
- Langile autonomoen UPTA sindikatuko idazkari nagusia ere bada

askok deitu didate babesema teko, bai berriztarrek eta baita Durangaldeko hainbatek ere. Nigaz ados daudela esan didate, eta pentsatzen dudana ez da erren, pentsatzen dudana esateko eskubidea daukadala.

“Nire iritzia adierazteko aske naiz; esandakoak ez nituen alderdiaren izenean esan”

Aurrerantzean, zer?

Argi daukat orain arte jarraitu dudana bidetik jarraituko dudala, nire iritzia adierazten. Nik ez nituen txilioak alderdiaren edo sindikatua izenean bota. Esan nituenak neure izenean esan nituen. Zera oihukatu nuen: “monarkia behehera!”, “gora errepublika!” “monarkia frankista! “monarkia hiltzaillea! eta “herri honek memoria dauka!”. Askok daukate nire moduan errerepublikaren aldeko jarrera hori, eta gure iritzia azaltzeko libre izan beharko genuke. ■ A.Ugalde

Pasa den astean komunikabide guztietan agertu zen Koldo Mendez Berrizko PSE-EEko zinegotzia. Bilbora Espainiako printze-printzesak etorri zirenean monarkiaren kontrako oihuak bota zituen eta Ertzaintzak atxilotu egin zuen. Poliziek berarekin izandako jarrera “bortitza” eta komunikabideen jarduna salatu gura ditu Mendezek.

Asteon alderdi sozialistako arduradunekin egon zara. Zer esan dizute?

Gertakarien nire bertsoia kontatzeko deitu didate, eta esan didate espedientea zabalduko didatela. Horrek ez du inondik ere esan gura alderditik botako nautenik; ikerketa hasiko dute Bilbon gertatutakoa argitzeko.

Zer kontatu diezu zuk?

Joan den astean kontatu nizuena. Bilbon Asturiasko printze-printzesen etorreragaz egin nuen topo, eta errerepublikaren aldeko oihuak bota nituen. Ingurukoek

nirekin bat egin zuten oihu horietan. Ertzain batzuk nigana etorri ziren ea pozik nengoen galdetzeko. Nik baietz erantzun nien, libre naizela neure iritzia adierazteko. Kolpeka atxilotu ninduten eta Deustuko ertzainetxean ere lurrera bota ninduten, eta hainbatetan jo.

Komunikabideek gertatutakoak ez dituzte horrela kontatu.

Ertzaintzak eragin duen intoxikazioagatik izan da hori. Badakite pasatu egin zirela nirekin, eta horregatik, fanatikoa banintz legez aurkeztu behar izan naute. Zoroa, eta ez bere eskubide politikoak askatasunez bizi dituen herritar bezala.

Zelan zaude orain?

Ertzaintzak nigaz izan zuen jarrera dela-eta salaketa

prestatzen nabil. Oso babes-tuta sentitzen naiz. Elkartasun mezu piloa jaso dut, ehundaka. Bai alderdiko kideen aldetik, eta baita gizarteko beste esparru askotako jendearengandik ere.

Kritikak ere jaso dituzuzure alderditik eta sindikatutik.

Kritikak baino ez dira agertu komunikabideetan, babesak egon dira, baina horien berri ez da ia eman. Alderdiak jarrera bat hartu behar du, eta hori ulertzen dut, baina ez nire bertsoia entzun aurretik, ostean baino. Errugabetasun-presuntzioa aldarrikatu gura dut; ni entzun aurretik egin dituzte kritika guztiak.

Zer ondorio atera duzu gertatutako guztiaren ostean?

Argi ikusi dut herri honetan errerepublikaren aldeko jende asko dagoela, eta ezin dela euren iritzia isildu. Herritarrok gure eskubideak exijitu behar ditugu, eta errerepublikaren aldeko iritzia aldarrikapen bizia da. Demokrazia-gaz lotutako aldarrikapena

“Nire bertsoia entzun aurretik egin dituzte kritika guztiak”

da, arazo asko konponduko lituzkeena, baita Euskal Herriko gatazka ere. Jaso dudana babes eskertzekoa da, eta babesen artean, Iñaki Anasagatik egindako adierazpenak eskertu gura ditut. Nik ere babes erakutsi gura diot bere liburuarengatik jaso dituen erasoaren aurrean.

Komunikabideen jarduna ere gogor salatu duzu

Komunikabideek, albistea argitaratu eta intoxikatu aurretik, iturriak kontsultatu beharko lituzkete, baina ezer galdetu barik eta gertatu dena ezagutu barik ailegatzaren zaien lehen zaborra ontzat hartzen dute.

Berriztik ere babes jaso duzu?

Bai, oraindik korporazioak ez du bere jarrerari buruz adierazpenik egin, baina herritar

“Ertzainek badakite nirekin pasatu egin zirela; horregatik fanatikoa banintz legez aurkeztu naute komunikabideetara”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Elkarteko kide diren dendak, erosle-talde moduan eratu eta guztiek beharrezko eta oinarrizko dituzten produktu eta zerbitzuen hornikuntzan dirua aurrezteko helburuagaz ipini du +Dendak elkarteak proiektu pilotua martxan. Egoera ekonomikoak behartutako "txip aldaketaren" barneko irtenbide eta aukera legez aurkeztu diete elkarteko merkatariei egitasmoa.

Merkatari gehienek konpartitzen dituzten zerbitzu eta produktuengatik gastu batzuk (telefonoa eta Internetarako konexioa, garbiketa, aseguruak, e.a.) taldean kontratatuta kostua murriztea lortzea da egitasmoaren funtsa. Oarbeaskoa elkarteko presidentek aurreratu duenez, zerbitzu batzuetan %5-25 bitartean aurrezte lortu liteke modu horretara.

Elkarteko kide diren merkatarien artean "Bizkaian aitzindaria" den egitasmoak harrera oso ona izan duela nabarmendu dute. Asko agertu ei dira parte hartzekeko prest. Elkartera bazkide berriak erakartzeko modu ona izango dela ere azpimarratu dute merkatarien elkartearen egoitzan egindako aurkezpenean. ■ I.E.

Produktu eta zerbitzuen erosketa-taldea osatzeko

Urtariletik dihardu +Dendak elkarteak egitasmoa martxan ipintzeko lanetan



Gillermo Oarbeskoa, Araceli Guerrero eta Celia Utrera +Dendak elkarteko kideak. I.E.

Bertako okela udalekueetan egoteko eskaria

Erraldek umeen udalekueetako jangeletan bertako okelaren aldeko apustua egin dezan eskatu dio Foru Aldundiari; izan ere, "udalekueetako jangeletan ez da bertako okela inondik inora ikusten".

Gainera, Erraldek jakinarazi duenez, "kontsumitzen den okelaren %22 baseritarrek ekoizten badute ere, uda sasoiaren arazo handiak dituzte haragia saldu eta merkaturatzeko".

Erraldek bertako okela eta kalitatekoa eskaintzen die diputazioei, merkaturatu prezio lehiakorrean eskaini ere, umeek udaleku "proteiniko eta osasuntsuagoa" izan dezaten. ■ G.A.

> IURRETA

Enpresa berriak sortzea sustatu nahi du Udalak

Enpresa proiektuen lehiaketa antolatu du Iurretako Udalak

Iurretako Udalak herri-erdigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatu nahi ditu eta bidea erraztu nahi die, norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei. Horretarako Iurretako II. enpresa-proiektuen lehiaketa martxan ipini du Udalak. Ideia lehiaketa honen helburua herrigunean espirtu ekintzailea sustatzea da. Horrez gainera, enpresa berriak sortu, aberastasuna eta enplegua sortzen lagunduko dutenak, edo Iurretako merkataritza birgaituko dutenak.

Aurkeztutako proiektuek udalerriko errealitatea kontuan izan behar dute eta Iurretako erdigunera mugatu behar dira. Enpresa proiektua aukeratzeko orduan baloratu da, proiektuaren originaltasuna eta kalitatea eta jarduerarako teknologia berriak erabiltzea, besteak beste.

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea ekainetik urriaren 15era bitartekoa izango da. Balorazio Batzordeak aukeratuko du irabazlea eta 9.000 euro jasoko ditu. ■ G.A.

> ABADIÑO

Inyectametalgo lan hitzarmena adostu dute

Inyectametalgo beharginek eta enpresaklan hitzarmenaren inguruan akordioa lortu zuten joan zen astean. Enpresa komiteko presidentek jakinarazi duenez, bizi dugun krisi egoera kontuan izanda, "lortutako akordioa nahiko egokia da". Adostutako lan hitzarmenean, KPI + %1 izango dute, eta aldi bateko beharginek ere norberaren aukerako egunak izango dituzte. Laneko segurtasuna hobetzeko, jateko gune bat zehaztuko dute. Beharginek lan hitzarmena batzarrean bozkatu zuten, 151k alde bozkatu zuten, 20k kontra eta 4k zuri. ■ G.A.

■ kolaborazioa



Augusto Uriarte Behargintza

Tecnalia Iurretara

Antza denez, EAEko hiru hiriburuetak alkate guztiak dabilta helburu bera lortu guran. Uste dut hau guztiau ezingo dela, ba, ondo amaitu. Izan ere, halako kontuek sekula ez dute konponbide onik izan. Edozeinek baieztatu lezake hala gertatu ohi dela.

Euskal Hiriaren kontzeptua ez da berria eta haren arabera metropoli bat eta bera osatzen dute hiru probintziak batera. Esamolde horrek hiri handi bakartzat jotzen ditu eta hiru probintziak; eta, hala, hiru herrialdeok bakarria balira bezala erabaki behar lirateke lurralde-antolamendua, azpiegiturak eta ekipamenduak.

Honaino eroangarria da, teoriarik behintzat. Hiriburuetako udalburuek eurek ere hainbatetan erabili dute eta ahotan konurbazio handia ulertzeko modu bera. Hala ere, ez diot ezer berririk, esaten badut eurek ere ez dituztela sinesten esamoldearen uestezko sortzaile Bernardo Atxagaren aurrean esanikoak.

Egunotan agerikoa da hiru oilarrak elkarri mokoka dabiltzala Tecnalia norberaren hirian izan dezan egoitza. Liskar horretara diputatu nagusiak ere batu zaizkie. Ahaztu egin dute ez dela hain inportantea zerk non duen egoitza. Proiektu handiak nork bere etxeko lorategian izatea besterik ez darabilte buruan, eta hiru probintzietako herritarrek baztertzeko dituzte. Udalerriek eta eskualdeek lurraldea egituratu behar dutelako kontuak ez die ardura. Batek daki zer erretzen duten

Egitasmo erakargarri eta deigarri guztiak hiribuetara daroiz. ETB aldatu zuten, bada, Bilbora; orduan, ekarri diezagutela zer edo zer hona, ezta?

Ekile edo "enprendoreei" eskainitako egunaren inguruan une egokia da negozio edo enpresak abian ipintzen dutenen adorea aitortzeko. Gogoan izan behar dugu enpresa eta ekimen berriak honako proiektu bultzatzaileen beharra dutela.

Gustura asko utziko nituzke, bada, hiru lehiatzaile horiek saririk barik.

Oharra: Tecnalia korporazio teknologikoa da, hainbat sektoretako teknologia eta berrikuntza premiak betetzen diharduena, eta 1500 ikertzailetik gora ditu.

KULTURA[>]

MUSIKA > EMANALDIA

Durango Hiria lehiaketaren bosgarren edizioko uzta

Ekainaren 5ean, Durango San Agustinen, 20:00etan izango da Silboberri txistu elkartearen emanaldia. Elkarrekin hain bosgarren antolatutako txisturako konposizioen Durango Hiria lehiaketako hiru lan sarituen estreinaldia egingo dute.

Biharko emanaldian estreinatuko dituzte ia zokorik lehiaketan lehenengo saria jaso zuen Urtzi Iraizoz konposatzaile nafarraren txistu eta pianoarako *Zain lana*, bigarren saria jaso zuen egile beraren txistu eta perkusioagaz jotzeko sortutako *Jostetan*, eta hirugarren saria lortutako David Cantalejoren *Insomnio*. Aldameneko argazkian agertzen diren Silboberri elkartearen musikari

biek, Aitor Amilibiak eta Sergio Toricesek, joko dute, biharko emanaldian, bigarren saria jaso zuen Urtzi Iraizozen *Jostetan*.

Durango Hirian saritutako hiru konposizio-lanen estreinaldiaz gainera, beste bost lan ere, txistuagaz eta pianoagaz jotzeko prestatutakoak, eskainiko dituzte biharko kontzertuaren bigarren partean: David Cantalejo, Juan Carlos Perez, Martin Zalba, Jon G. Etxeandia, eta Francisco Ibañezek sortutako lanak estreinatuko dituzte. Bestetik, Silboberri elkarteagaz elkarlanean jardun zuen Jesus Alonso Bilboko kontserbatorioko musikariaren omenez, Hilario Extremianak sortutako lana ere eskainiko dute bihar. ■ I.E.



12 '80 egunear' Elorrioko Arriolan

Ekainaren 5, 6, eta 7an emango dute Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzenduriko filma Arriolan: 50 urteren ostean ospitalean topo egiten duten emakume biren istorioa da.



13

Miren Amuriza txapeldun

Zapatuan, Berrizko frontoian berrehun lagun baino gehiago batu zituen Durangaldeko Bertsolari txapelketaren finalak. Amurizak jantzi zuen txapela.

ZINEMA > EMANALDIA

'80 egunean' filmaren hiru emanaldi asteburuan Elorrion

Ekainaren 5ean, 22:30ean; eta ekainaren 6 eta 7an, 20:00etan emango dute Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzenduriko filma Elorrion

Elkar ikusi barik 50 urte eman ostean, ospitalean topo egiten dute 70 urteko Axuneketalesbianaizaera naturaltasun osoz bizi duen Maitek. Haien istorioa da *80 egunean* filmekoa. Nerabezaroan lagun minak zirenean bezala, elkarrekin axolagabe gozatu eta dibertitzen diren emakume biren istorioa gorpuzten dute Itziar Aizpuru eta Mariasun Pagoaga aktoreek, maiatzean estreinatu zuten filmean.

Maiatzean egin zuten '80 egunean' filmaren estreinaldia

"Buruari ala bihotzari, zeri egin jaramon?", zalantzarik buruzko filma

"Adina, sexua, edo dena delakoaren gainetik desioakegia bihurtzeko ausardiari" eta "buruari ala bihotzari, zeri jaramon egin?" zalantza unibertsalari buruzko filma osatu gura izan dute zuzendariek.

'Hilean Behin'-go ekainekoa
El poder de la palabra filma dakar bestalde, Hilean Behin ekimenak: ekainaren 10ean, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dute Txileko ekoizpena. ■ I.E.

MUSIKA > DISKO BERRIA

Ska, reggae eta rock doinuak Emon taldearen 'Piztu herria' disko berrian

Maiatzean kaleratu du zortzikoteak diskoa; zuzenean aurkezten dihardute orain

Ekainean, uztailean eta abuztuan Nafarroa, Iparralde eta Gipuzkoan lotuak dituzte Emon taldekoek kaleratu berri duten *Piztu Herria* diskoa aurkezteko kontzertuak. Zortzi musikaririk osatzen dute Emon gaur egun, eta 2007an taldea sortu zutenetik hainbat aldaketa egin zituzten arren, egonkortua dute dagoeneko taldea: Bergara, Soraluze, Eibar eta Ibarako taldekideekin, saxofoia eta



tronpeta jotzen Oier eta Mikel elorriarrek dihardute gainera. Trapatoni Circus Band taldean ere jotzen du Mikelek; eta Bilbosax taldean jardundakoa da Oier.

Zortzi musikariren eta euren instrumentuen soinuen konbinazioetik sortu dituzte maiatzean kaleratutako diskoko kantuak ere. Ska, reggae eta rock doinuak uztartzen dituzte, guztiekin jairako oso aproposak diren doinu dantzagarriak sortzeko. Diskoan, bestalde, Betagarri, Esne Beltza eta Sagarroi taldeetako lagunen kolaborazioak hartu dituzte. Udara begira, Euskal Herriko hainbat herritan egingo dituzten kontzertuetan aieratuko dituzte kantuak. ■ I.E.

Elorriar bi daude taldean: saxoa eta tronpeta jotzen dute

Betagarri, Esne Beltza eta Sagarroi taldeen kolaborazioagaz

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea



Anonimoak

Orain dela hile batzuk bere atea itxi zituen Iurretako Mikel Deuna Kultur Taldeak hogeitabost urtean eleizate honetan kultura bultzatzen saiatu ondoren.

Egia esan, azken urteetan lau ziren taldekideak: Maria Pilar Mintegia, Mari Tere Zugazartaza, Jose Javier Abasolo "Tiliño" eta beti esku bat botatzeko prest izan duten Juan Jose Aiesta. Hasieran asko izan ginen kultur taldeko partaide, baina batzuk apurka-apurka uzten joan ginen hartutako konpromisoa eta azken urteetan eurak izan dira Mikel Deuna Kultur Taldeari eutsi diotenak.

Ezer gehiago aipatu baino lehenago mila esker eta zorionak egin duzuen lanagatik. Ez dakit ona edo txarra izan den eta ez dit piper bat ere ardura. Seguru, askotan entzun duzuela "ba...", "hobeto antolatuta leiteke..." "ez da hain gaxa hori prestatzea..." eta antzerako esaldiak. Telesforo Aranzadi adituak esaten zuen "beste batzuek hobeto egingo zuten, guk egin egiten dugu" eta hori da egia. Orain konturatuko dira/gara zer egiten zenuten: musikaldia, bidaiak, ihauteriak, antzerkia, kontzertuak...

Baina ez zarete kirolariak izan eta hautsi dituzuen markak ez dira garrantzitsuak. Horregatik ez espero omenaldi edo aipamenik. Hori normala da gure herrietan. Gainera kultur mundukook beti izan dugu usain susmagarria, ez gara fidagarriak, batzuk gainera apur bat gorriak.

Herri guztietan daude hainbat kultur talde txiki euren gain hartzen dutenak dantza, euskara, kultura etab. babestu eta bultzatzea, eta gure agintariak ez dira konturatzen euren esku dagoela herriko kultura. Jende honek ez du ordurik, kultur munduko funtzionario askok ez bezala, ez du eguerdiko hiruretan "lana" uzten biharamun goizera arte. Jende hau da benetan gure herriko zutabe garrantzitsuenetako bat. Euren lanak garrantzi gehiago du gure eguneroko munduan Bilbon antolatutako emanaldi "zoragarriak" baino.

Baina lagunok... ez espero omenaldirik, hil ostean ez badira, baina jarraitu lanean... merezi du, behar zaituztegu. Besterik ez bada ere har itzazue, Iurretako laurok eta gure eskualdeko beste kultur gileok, zuten herritar askoren omen eta esker ona.

LITERATURA >

Iurreta eta Durangoko irakurle taldeak ere Larrabetzuko Literaturian

Ekainaren 4, 5, eta 6an Larrabetzuko jaialdian izango dira Durangaldeko irakurle talde biak

Euskarazko literatura argitaratzen duten argitaletxeen azoka antolatu dute asteburu honetarako Larrabetzun. Bizkaiko eta Gipuzkoako beste liburutegi

Euren esperientzia eta kezak partekatuko dituzte irakurleek

batzuetako taldeekin batera, ekainaren 5ean, 10:00etan, Durangoko eta Iurretako irakurle taldeetako kideek ere hartuko dute parte egingo duten mahai-inguruan. Euren kezak eta esperientziak partekatzeak aukera izango dute irakurleek bertan.

Literaturia Literatura Eskolaren, Larrabetzuko kultur eragileen, eta Euskal Herriko irakurle klubuen elkarlanagaz antolatu dute hitzordua. Literaturako nobedadeen berri emango dute eta musika eta poesia errezitaldiak eta antzezlanak ere antolatu dituzte astebururako. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

EKAINAK 5 22:00etan
SOULRISES
Aurkezpen kontzertua
KONTZERTUA. Sarrera doan.

EKAINAK 10 21:00etan
DURANG(H)OTS
Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola
JAM SESSION. Sarrera doan.

EKAINAK 11 20:00etan
EUSKAL HERRIA HAITIREN ALDE
Elkartasun jaialdia
JAIALDIA. Sarrera: 5euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

TXISTU KONTZERTUA DURANGO HIRIA
Lehiaketarako lan sarrituen estreinaldia
Ekainak 5 • 20:00etan

ITSASOAREN ALABA
Zuzendaria: Josu Martínez. 2009

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Ekainak 10 • 19:30ean

HITZ
Liburudenda

11.94 601 07 76

ingurumena2010

genigarria

anboto



babesleak:



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxe: 94 623 17 99

CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Bidegorrien erabilera, lehentasun eta abiadurak zehaztu dituzte

Durango Udalak informazio kanpaina ipini du martxan bidegorrien erabileran bete beharreko arauak jakinarazteko

2006. urtean Agenda 21eko Ekintza Plana onetsita, oinarriak ezarri zituzten herri barruko joan-etorri iraunkor eta osasungarriagoak bultzatzeko. Horrela, oinezkoei eta bizikletazaleei indarra emanez, Durango bidegorritan 600 metro inguru izatetik, (Arripauseta-Landako ibilbidea), egun II. eta III. faseetako bidegorriekin 7,5 kilometroko bidegorri-ibilbidea izatera igaro da, hau da, alde batetik Askatasuna-Fauste eta Alde Zaharra eta bestetik Kurutzia, Juan Mari Altunatik instituturaino. Baina, 2011. urterako 10 kilometro inguru izango ditu Durango bidegorritan. Izan ere, gaur egun IV. eta V. faseei ekinda daude, Fauste Astolabideari eta Abadiño bidegorriari lotzeko. Lehen fasea berriz, Askatasun etorbidea Tabirarekin lotzen duena, oraindik proiektua da. Lehendabiziko lau faseek 1.650.000 euroko inbertsioa eragin dute.

Bost fase hauek bidegorrien ardatza osatzen dute, gero ardatz horri bidegorri-adarrak lotuko zaizkio. Hortaz, behin Arau

Subsidiarioak garatuta, Durango 38 kilometroko sarea izango du guztira bizikleta patin, patinete eta monopatinetan ibiltzeko.

Gune konpartituak egoki seinaleztatuta izateko, hurrengo asteetan ekingo diote seinaleak ipintzeari, alde zaharrean, Ezkurdi plazan eta Arripausetan. Bizikletak aparkatzeko 44 gune ipini dituzte, guztira 160 bizikleta uzteko moduan. Gaur egun, herritarren %4k darabilte bizikleta joan-etorriak egiteko, Mugikortasun Iraunkorrerako Plana onesteko erabilitako diagnosian jasotako datuen arabera. 2006an berriz, durangarren %1 inguruk erabiltzen zuen bizikleta.

Zirkulazio ordenantzan aldaketak

Durango kaleetan bidegorriak ipini izanak eta euron erabilerak eragindako arazo, kexa eta ekarpenak direla-eta, udalak beharrezkoztat jo du bizikletaz eta patinetan dabiltzaren zirkulazioa zein oinezkoena arautzea; baita igarotze-lehentasunak eta bizikletarien gehieneko abiadurak zehaztea ere. Horregatik, ezinbestekoa ikusten dute bidegorriak zelan erabili behar diren argitzea. Horretarako, udalak informazio kanpaina ipiniko du martxan eta udaltzainak arduratuko dira herritarrek arauak betetzeaz. Horrela, kotxeagaz bidegorritik ibiliz gero, isuna 200 eurokoa da; bizikletarien lehentasuna ez errespetzatzearren eurondako ibilbideetan 90 euroko isuna ordaindu beharko da. Bizikletan



Bizikletak txirrina izan behar du, gaez argiak eta islatzaile homologatuak eraman behar dira. 14 urtetik beherako gazteek kaskoa eraman behar dute

txirrinik ez eramateak eta 14 urtetik beherako gazteak kasko barik ibiltzeak 90 euroko isuna dakar; eta bizikletaz ibili ezin den guneeetan ibiltzea, berriz, 60 eurorekin ordaindu beharko da.

Esker ona

Udalak esker ona adierazi die Agenda 21eko Mugikortasuneko lan-taldeei, bidegorrien loturaren zein bizikleten aparkalekuen diseinuan eta instalatzeko guneak aukeratzean egindako lanagatik.

Bizikletarien gehieneko abiadura bidegorrian 15 km orduko izango da; gune anitzetan 10 km orduko

ZIRKULAZIO ORDENANTZAKO ARAUETAKO BERRIKUNTZAK

1.- ERABILERA BAIMENDUAK

BIZIKLETARIAK honakoetan ibili daitezke:

- Bidegorriak
- Oinezkoentzako gune konpartituak; bidegorriak ez badago.
- Ibilgailuentzako galtzadak; baldin eta bidegorriak ez badago.

OINEZKOAK honakoetan ibili daitezke:

- Espaloiak
- Oinezkoentzako gune berariazko zein konpartituetan
- Oinezkoentzako ibilbideak, parke eta belartzetan
- Galtzadetan beste aldera igarotzeko ipinitako igarobideak (oinetzkoentzako igarobideak, zebra pasabideak)
- Oinezkoek ezin dute bidegorria gurutzatu ez bada zebra bidetik, Kurutzia moduko bidegorrien kasuetan izan ezik, zebra bideen artean distantzia handia dagoenean.

PATIN, MONOPATIN ETA PATINETEAK

- Bidegorriak
- Oinezkoentzako gune konpartituak
- Oinezkoentzako ibilbideak, parke eta lorategietan.

2.- LEHENTASUNAK

Bidegurutzetan; Oinezkoak beti lehenengo, bizikletariak edota patinatzaileak bigarren eta azkenik motordun ibilgailuak.

3.- BIZIKLETARIEN ABIADURA

Bizikleta ibilbideetan 15 km/h; Oinezkoekin konpartitutako guneeetan 10km/h. Gune konpartituetan jendetza dagoenean oinezkoen ibilerari egokitu behar dute.

4.- ALDEAN EROAN BEHARREKOAK

- Bizikletan txirrina; gaez argiak eta gai islatzaile homologatuak; bizikletariak eta 14 urtetik beherako patinatzaileek kaskoa.

BIDEGORRIEN GAUR EGUNGO EGOERA

I. Fasea

- Ibilbidea: Askatasun etorbidea-Tabira.
- Luzera: 1.250 metro.
- Egiteko
- Aurrekontua: 1.800.000 euro

II. Fasea

- Ibilbidea: Askat. etorb-Fauste-Alde Zaharra
- Luzera: 3.401 metro.
- Gauzatua
- Diru kopurua: 287.719 euro

III. Fasea

- Ibilbidea: Kurutzia-Institutua
- Luzera: 1.995 metro
- Gauzatua
- Diru kopurua: 860.476 euro

IV eta V. Faseak

- Ibilbidea: Fauste- Astolabideari eta Abadiño bidegorriari lotzeko
- Luzera: 1.230 metro
- Lanak hasita. Lau hilabete barru gauzatua egongo da
- Diru kopurua bi faseak: 465.403 euro

DURANGO

2.010eko Ekainaren 8tik 13ra



Espainiako Kluben arteko
XII. Txapelketa Kadete mutilak

Etorkizuneko jokalariek Espainiako kadete txapelketan

Espainiako Estatuko klub garrantzitsuenetarikoak batuko dira datorren astean Durangon, kadete mailako txapelketa jokatzeko. Donostiako Easo ere bertan izango da parte hartzen.



Txapela irabazteko Bartzelona eta Real Madril dira favorito nagusiak, baina sorpresarako aukera ez dute baztertzen antolatzaileek

Donostiako Easo taldeak antolatzaile moduan lortu du azken faserako pasea, eta beraz, etxean jokatu duela esan daiteke

Ekainaren 8an ekingo zaio Espainiako kadete mailako txapelketaren azken faseari. Estatu osotik etorritako 12 talde izango dira lehian, hilaren 13ra bitarteko jardunaldietan. Gaztetxo hauek maila bikaina erakutsiko dute; seguruenik, hemendik urte gutxira ACB Ligan punta-puntan ibiliko diren hainbat jokalarik ikusteko aukera izango da Landakon.

Joan zen asteburuan txapelketa lehen fasea burutu zen zonaldeka. Estatuko lau konferentziatan –iparralde, hegoalde, zentroa eta ekialde– banatuta, hamarnaka talde ibili ziren Durangoko azken fasean sartzeko burrukan. Iparraldeko kanporaketa Lugo jokatu zen, eta bertatik Estudiantes Lugo eta Valladolid Maristas taldeak sailkatu ziren. Hegoaldetik Unicaja eta La Caja de Canarias etorriko dira, hala erabaki baitzen Sevillan. Ekialdetik Bartzelona, Joventut Badalona eta CAI Zaragozak lortu dute pasatzea, Logroñon irabazi ondoren. Azkenik,

erdiguneko konferentzian Valentzia BC Sunny Delight, Lucentum Alacant, Real Madril eta Fuenlabrada sailkatu ziren.

Hauekin guztiekin batera ariko da euskaldun bakarra: Donostiako Easo Saskibaloitza Taldea. Antolatzaile moduan lortu du Durangorako pasea, eta beraz, etxean jokatu duela esan daiteke.

Tabirakoko antolatzaileek azaldu digutenez, Bartzelona –iazko txapelketa– eta Real Madril izango dira txapelkerako favoritoak baina “Easok egin dezakeen papera” ere azpimarratu dute. Sorpresarako aukera ez dute baztertzen, beraz.

Real Madril izango du aurkari arriskutsuena, segurutik.

Babesleak

Mota honetako ekimenak antolatzeko orduan garrantzitsua izan ohi da babesle eta laguntzaileak edukitzea. Tabirakok oraingo honetan ere baditu erakunde babesleak alboan: Cafés Baqué, Durangoko Udala/Durango Kirolak, Sukia Eraikuntzak, Zarate-Elexpe Eraikuntzak eta Supermercados Simply. Horretaz gainera, aipagarria da kolaboratzaile ugari ere badituela inguruan, eta horien artean dago Anboto.

Ekainak 8

10:00: Caja de Canarias - Fuenlabrada
12:00: Bartzelona - Unicaja
17:00: Valladolid - Joventut
19:15: Real Madril - Estudiantes Lugo

Ekainak 9

10:00: Caja de Canarias - CAI Zaragoza
12:00: Bartzelona - Lucentum
17:00: Valladolid - Valentzia
19:15: Real Madril - Easo

Ekainak 10

10:00: Fuenlabrada - CAI Zaragoza
12:00: Unicaja - Lucentum
17:00: Joventut - Valentzia
19:15: Estudiantes Lugo - Easo

JARDUNALDIAK

Ekainak 11

09:30: 9, 10, 11, 12 postuak
13:30: Final-laudenak

Ekainak 12

09:30: 9, 10, 11, 12 postuak
13:30: 5, 6, 7, 8 postuak
18:00: Finalerdiak

Ekainak 13

09:00: 3, 4, 5, 6, 7, 8 postuak
12:00: FINALA

50. URTEMUGAKO EGITARAUAK EZ DU ETENIK

Dozenaka ekitaldi burutu dituzte Tabirakoren 50. urteurrena ospatzeko, eta oraindik ere geratzen dira batzuk data berezi hau amaitu aurretik. Tartean, aipagarria da Aíto García Renesesek bisitatuko duela Durango.

Espainiako kadete mailako txapelketagaz batera Tabirakoren 4. Clinic-a garatuko da, ekainaren 12an. Jesuitak ikastetxean izango da hitzordua, arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Bertan, hiru hizlari izango dira: Luis Guil (16 urtez azpiko mutilen hautatzailea), Manolo Aller (Guilen laguntzailea) eta Ramon Jordana (Siglo XXIren arduraduna).

Hilaren 19an, denboraldiari agur esateko bazkaria antolatuko dute. Gainera, 50. urteurrena agurtzeko ere erabiliko dute ekimena.

Dena dela, Tabirakok badu udarako egitaraua. Alde batetik, III. Tabirako Sukia Udaeskola garatuko da ekainaren 21etik uztailaren 2ra. Bestetik, uztailaren 3rako Emilio Baquéren omenezko Clinic bat eratu dute.

Emilio Baqué Clinic-a

Tabirakotik azaltzen dutenez, Emilio Baqué garrantzi handia ematen zion entrenatzaileen prestakuntzari, eta horregatik, omenaldirik onena Clinic bat antolatzea dela iritzi diote. Hizlari bikainak ekarriko dituzte ekimen honetarako: Aíto García Reneses, Jaume Ponsarnau, Pepe Laso eta Txus Vidorreta. Defentsaren gainean egingo dute berba Landako kiroldegian, goiz eta arratsaldean.



Seguruenik, hemendik urte gutxira ACB Ligan punta-puntan ibiliko diren hainbat jokalarik ikusteko aukera izango da



Laguntzaile andana



Tabirakoko batzordekideek gogotik lan egin dute aurten 50. urtemugako ekitaldiak antolatzen.

Tabirakoko zuzendaritzako batzordekideek bazekiten urtemugako egitaraua prestatzeko lan handia ekarriko ziena, bai eta saskibaloia taldearen inguruan dabilzanek ondo erantzungo zutena, ekitaldietan lagunduz. Orkesta-zuzendarien modura, batzordekideek egitaraua prestatu dute eta gainerakoek ere bete dituzte nork bere egitekoak.

Ekitaldietarako boluntario sare zabala osatzea lortu dute. Rosa Garcia, Fede Mendizabal, Itsaso Gartzia, J.M. Arriba, Rafa Zabala, Hilario Perez eta Mari Karmen Sarrionandia dira urtemugako ekitaldietan buru dihardutenak. Egitaraua 2008ko irailean prestatzen hasi ziren. Euskal Herriko saskibaloia arloan Tabirako erreferen-

tziala da eta horren adibide da urtemugako ekitaldien zerrenda luzea. "Bizkaiko federazioan beti galdetzen digute ea zelan ditugun hainbeste kolaboratzaile behar egiteko gertu", azaldu digu Itsaso Gartzia. Tabirakoko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzakide, guraso eta jokalaria ohiek bat egin dute taldearen deiarri erantzuterakoan.

Taldearen filosofiak borondatezko lana aldarrikatzen du. Goiburu horrekin antolatu dute 2010eko urtemuga. Ekitaldietan 150 kolaboratzailek gogotsu ekin diote lanari.

Tabirakok urtemugako egitaraua martxan jartzeko hainbat laguntzaile izan ditu aldamenean

Bazkari herrikoia taldekideen bilgune

Tabirakok saskibaloia ardatz hartuta bost hamarkadako ibilbidean milaka lagun batu dituzte, denekin bazkaria antolatuko dute. Urtemugako ekitaldiei amaiera emateko jaialdia ekainaren 19rako antolatuko dute. Eguna hasteko, 13:00etan elizkizuna izango dute Jesuitetan, zendutako kide guztien omenez. "Eskerrak emango ditugu gure klubak Durangori ematen dionagatik eta berau existitzea posible egiten dutenagatik", diote taldekideek. Ondoren, Landako Gunean 15:00etan prestatuko duten bazkari herrikoian 800 lagun inguru batuko dira. Luhartz taldeak giro-tuko du jaia. Afaritarako mokadutxo 20:30ean banatuko dute. Dantzaldia gaueko 00:00etan amaitzea aurreikusi dute.

Parte hartu gura dutenek, mahaian lagunartean jesartzeko, mezua bidali beharko dute tabirako@tabirako.com helbidera, ekainaren 6a baino lehenago, izen guztien berri emanez. Bazkideen txartelak 45 eurotan eskuratu daitezke eta gainerakoek 50 eurotan. Bankoa Credit Agricole bankuko 0138 0014 27 001057340 8 kontu korrontea jarri dute interesatuentzako eskuragarri.

Bazkaria amaitzen dutenean Tabigaztegunean monitoreek hainbat ekintza prestatuko dituzte umeentzako.

Egun horretan, denboraldi hasieran banatutako kamiseta beltza jantzita agertzeko eskatu dute antolatzaileek.

Tabirako-Sukia uda eskola ekainaren 21etik uztailaren 2ra

Durangaldeko 7 eta 13 urte arteko 185 ume batuko dira saskibaloia ardatz duen Tabirakoren udaeskola berezian

Saskibaloia bidez laguntasuna eta kiroltasuna lako balioak bultzatzea da antolatzaileen helburu nagusia

Tabirakok hirugarren aldiz antolatutako uda eskola bereziaren helburua da eskualdeko umeek eman ditzatela oportetako lehen egunak saskibaloiaz hartu-emanetan.

Hala, ekainaren 21etik uztailaren 2ra arte, saskibaloian oinarrituta, kirolaren bitartez adiskidantza eta kiroltasuna lako giza balioak bultzatzeko asmoz antolatu du Tabirakok 185 ume batuko dituen saskibaloia eskola.

Tabirako klubeko 28 entrenatzailek jardungo dute udalekuan dinamizatzaile, Tabirakoren harrobiari daukan garrantzia eskaintzeko. Komunikazio tresna moduan beti ere euskara erabiliz, partidetatik kanpora urte barruan hartu-emanik ez duten jokalarien arteko elkarbizitza bultzatuko dute, bes-

teak beste, uda eskolako entrenatzaile eta antolatzaileek.

Aste bi iraungo duen uda eskolako parte hartzaileen elkargune nagusiak izango dira Landakoko kiroldegia eta eskola; hala ere, besteak beste, igerilekura ere egingo dituzte irteera bereziak.

Saskibaloian lagun giroan jokatzeaz gainera, saskibaloia inguruko beste jarduerara batzuetan ere arituko dira parte hartzaile gazteak: besteak beste, saskibaloia partida batean ezinbestekoak diren arbitro edo entrenatzaile lanak ere burutuko dituzte eta.

Saskibaloiaz lagun artean gozatzeko aukera eskainiko diete, ekainaren 21etik uztailaren 2ra arte, 9:00etatik 18:00etara arteko saioetara gerturatzen direnei.



“Boluntarioen laguntza barik ez zen txapelketarik egongo”



Hilario Perez Tabirakoko lehendakariagaz eta Mari Carmen Sarrionandia zuzendaritza batzordeko kideagaz batu gara txapelketaren gaineko xehetasunak jakiteko. Dena prest dute eta txapelketa hasteko gogoz daude.

Zelan sortu zen Espainiako Kluben arteko XII. Txapelketa Durangon egiten saiatzeko ideia?

Hilario Perez: Tabirakoren 50. urteurreneko prestakizunetarako lan taldeak sortu genituen eta horietako batetik irteerako ideia izan zen. Tankera horretako txapelketa bat Durangora ekartzea interesgarria zela proposatu zioten zuzendaritzari eta aurrera egitea erabaki genuen.

Espainiako, Euskadiko eta Bizkaiko saskibaloiko federazioak hasieratik egon ziren ados?

H.P.: Aipatu dituzun hiru federazioen zein udaltxearen aldetik beti sentitu izan dugu babes eta erraztasun asko eman dizkigute txapelketa hau Durangon antolatu dadin. Alde horretatik, esker oneko gaude.

“Hiru federazioek zein udaltxeak erraztasunak eman dizkigute txapelketa antolatzeko, eta esker oneko gaude”

Hiru federazioekin elkarlanean aritu zarete.

H.P.: Bai eta ez dugu ezelango arazorik izan. Esaterako, sasoi batean Tabirakoren emakumeen taldea Espainiako ligako bigarren mailan aritu zen eta federazio hartako kide izan ginen. Orduko gomuta onak dituzte bai klubarekiko eta bai zaleekiko. Beraz, alde horretatik erraztasunak ditugu. Pozik gaude txapelketa Durangon garatuko delako.

Orain hile bi federazioetako ordezkariak etorri ziren Durangoko azpiegiturak ikusten.

H.P.: Federazioko ordezkari bi etorri ziren. Eurak izan ziren txapelketa jasotzeko azpiegitura nahikoak genituen baloratzeko arduradunak eta oso gustura geratu ziren.

Zer suposatzen du Tabirako klurentzat horrelako txapelketa bat jasotzeko?

H.P.: Guri lan asko ekarri digu; gustura egindakoa, baina lan handia izan da. Txapelketaren antolaketaren barruan lan taldeak sortu genituen, hamahiru hain zuzen, eta eurak izan dira txapelketaren xehetasunik txikiena ere kontuan hartzeko ardura izan dutenak. Boluntario askok jardun dute lanean eta euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen antolaketa.

Hain ekimen handietan dena kontrolpean izaten saiatuta ere beti sortzen dira ezustekoak eta azken orduko aldaketak. Zelan dago antolakuntza?

H.P.: Gehiena, ia guztia, prest dago. Falta diren detaileekin lanean ari gara. Astelehenean izan genuen azkenengo batzarra lan taldeagaz eta martitzenean denak batu genituen azkenengo xehetasunak azaltzeko. Urduri gaude, lasai egotea ia ezinezkoa delako, baina dena aurrikusi moduan joan da eta ilusio handia dugu.

“Beti daude azken orduko aldaketak edo eginbeharrak, baina lan talde handia izan dugu atzean eta ia guztia prestatuta dago”

Mari Carmen Sarrionandia: Ados nago. Beti geratzen da zeozer egiteko eta beti irtetzen du azken orduko eginbeharren batek, baina aspalditik lanean dihardugu, ez guk bakarrik, baita boluntario talde zabalak ere eta ilusio handiarekin gaude.

Egun horietan gaztetxoak eta gurasoz beteko da Durango. Herria promozionatzeko modua ere bada. **H.P.:** Hamabi talde etorriko dira eta talde bakoitzeko bisitarien zerrenda gurasoek, lagunak eta abarrek osatuko dute. Besteak beste, Malaga, Galizia, Katalunia eta Madrildik etorriko da jendea. Horrez gainera, txapelketa saskibaloia inguruko jendea ere erakarriko du Durangora: ikuskatzaileak, entrenatzaileak, hautatzaileak... Txapelketa berez ikusgarria izanik ere, are interesgarriago bihurtzen dute aipatutako kontuek.

Non hartuko dute ostatu?

H.P.: Durangoko komertzioa eta ostalaritza bultzatzeko baliatu daiteke txapelketa eta horretara jo dugu. Klub guztiei Durangoko eskaintza guztien berri eman diegu eta gero eurek aukeratu dute bata

ala bestea. Esaterako, talde batzuk Ibaizabalen edo Kurutzia hotelen egongo dira. Talderen bat Bilbora joango da. Azken baten, eurek aukeratu dute non ostatatu, baina ahal den heinean Durangora ekartzen saiatu gara, bertako eskaintzaren berri emanez.

Tabirakoren 50. urteurrena ospatzen diharduzue aurten. Orain arte garatutako ekintzez zer balorazio egiten duzu?

H.P.: lazko ekainean San Agustin kultur gunean egindako jaialdiagaz ekin genien urteurreneko ekimenei eta ordutik hona gauzatu ditugun ekimenen balorazio positiboa egiten dugu. Aurretik lan eta zailtasun handiko urtea genuela kontziente ginen eta ahaleginak bikoiztu egin behar izan ditugu; izan ere, urteurreneko ekimenak prestatzeaz gainera klubaren eguneroko eskakizunei ere aurre egin behar izan diegu. Honetan jardun dugun guztien artean sortutako batasunarengatik izan ez balitz ezin izango genukeen pentsatutakoa erreallitatez ekarri. Zuzendaritza aurpegi gutxi batzuek osatzen dugu, baina atzean lanean ibili direnak asko dira.

Txapelketako aldizkari bat ere atera duzue.

H.P.: Bai, hantxe agertzen da txapelketaren gaineko informazio guztia; noiz diren partidua, zer ordutan, taldeen zerrenda... Hori osatzen herriko dendari eta ostalariek hartu dute parte, bakoitzak ahal zuen neurrian. Horiei guztiei esker ona adierazi behar diegu.

M.C.S.: Aldeko jarrera erakutsi dute, bai. Kontuan hartu behar da garai gatxa bizi dugula eta hala ere euren babes eskaini digutela; eskertzeko modukoa da gero.

Joan zen asteburuan Jorge Oñate gogoratzeko ekimena egin zenuen. Tabirakok promesen Euskadiko selekzioaren kontra jokatu zuen.

H.P.: Egun hunkigarria izan zen. Landako kiroldegiko harmailtan jende asko batu zen eta partiduaren atsedendian bertan batutakoen berotasuna jaso ahal izan zuten senitartekoek. Gainera, Jorge Oñateren familiak gutun bat helarazi digu eskerrak emanez eta beraz egun polita izan zen.

“Durangoko komertzioa eta ostalaritza bultzatzeko, bertako eskaintzaren berri eman diegu; gero taldeek erabaki dute non ostatu hartu”



Oizen jotzen duen haizearen potentzia energia bihurtzen



www.iberdrolarenovables.es

Berriz, Mallabi eta Munitibarko lurretan dagoen Oizko parke eolikoa da Bizkaiko parkerik handiena eta energia gehien sortzen duena. Orain hiru urte beste 10 haize-sorgailu ipini zituzten 2003tik martxan dagoen parkean: 40 haize-sorgailu daude Oizen egun.

Energia lortzeko erregai fosilak baliatu beharrean haizearen energia baliatuta, urtean 87.000 tona CO₂ gutxiago isurtzen dira airera.

Eólicas de Euskadi enpresak kudeatu, eta Iberdrola Renovables-ek bultzatzen du Berriz, Mallabi eta Munitibarko lurretan dagoen Oizko parke eolikoa; Bizkaian handiena, eta potentzia handiena duen parkea da.

2003an ipini zituzten 850 kW-ko 30 haize-sorgailu Oizen, eta beste 10 aerosorgailu ezarri zituzten 2007an parkea handitzean. Guztira, 34 megawatio sortzen dute parkeko aerosorgailuek. Horregaz, enpresa kudeatzaileak azpimarratzen duenez, 90.000 lagunek urtebetean kontsumitzen duten elektrizitatearen adinakoa

produzitzen du Oizko parkeak.

Berriz, Mallabi eta Munitibarko lurretan, 850 eta mila metroren arteko altueran dago Oizko parkea, eta esan bezala, 2007. urtean handitu ostean 40 haize-sorgailu ditu guztira, gaur egun.

Parkea kudeatzen duen enpresak nabarmentzen duenez, urtero 87.000 tona CO₂ emisio ekiditen dira parke eolikoari eskerrak. Izan ere, erregai fosilak baliatzen dituzten planta termoelektrikoen alternatiba da haizean oinarritutako sistema hau.

Guztira, Iberdrola Renovables enpresaren lau parke eoliko

esker, 400.000 biztanleren energia kontsumoa asetzeko beste energia sortzen da, eta urtean 385.000 tona CO₂ aireratzea ekiditen da. Udako egun batzuetan, batez ere, oso energia gutxi sortzen badute ere, Iberdrola Renovables-ek dioenez, lau parkeen artean milioi bat lagunen kontsumoa ase lezakete.

Potentzia eolikotik ateratako energiari dagokionez, aurten maximo historikoetara iritsi dira Euskadi eta Espainian: haizetik sortutakoa izan da zenbait egunetan kontsumitzen den energiaren erdia. Hain justu horixe da energia sortzeko sistema honen ezaugarrietako bat: aldizkakoa eta kontrolaezina den ondasun baten araberakoa izatea. Horregatik da kudeatzaileentzat hain garrantzitsua tokian tokiko haizearen ezaugarriak ezagutzea. Eólicas de Euskadi enpresak jakinarazi duenez, aurtengo lehen hileetan azken 50 urteetako haizete handienak izan

Urtebetean 90.000 lagunek kontsumitzen duten beste energia produzitzen da Oizen

dira Espainian: 250 kilometro orduko abiadura erregistratu dute.

Kiotoko Protokoloan, zein Espainiako eta Euskadiko Plan Energetikoetan jasotzen denez, 2010. urtean beharizan energetikoen %12 energia berriztagarrietatik atera beharrekoa da.

Helburua da hamar urte barru, Euskadi, Espainia zein European energia guztiaren % 20 gutxienez energia berriztagarrietatik lortzea.

EÓLICAS DE EUSKADI ENPRESAK EGUN EUSKADIN LANEAN DITUEN PARKEAK

Parke eolikoa	Potentzia	Instalazio urtea	Energia	Urtero ekiditen den CO ₂ emisioa
ELGEA-URKILLA (Araba-Gipuzkoa)	60MW	2000-2003	200.000 lagunentzat	182.000 tona
OIZ (Bizkaia)	34MW	2003-2007	90.000 lagunentzat	87.000 tona
BADAIA (Araba)	50MW	2005	120.000 lagunentzat	116.000 tona
GUZTIRA	144MW		410.000 lagunentzat	385.000 tona



Birziklatu bai, baina ondo egiten dugu?

Geroago eta gehiago birziklatzen badugu ere, batzuetan edukiontzietara bota behar ez dena botatzen dugu. Hona hemen ondo birziklatzeko gomendio batzuk:

Edukiontzi horia

Jostailuak, etxetresna elektrikoak, pertxak... plastikozkoak izan arren, ez dira edukiontzi honetara bota behar. CDak, bideo zintak, kaseteak eta horrelako gaiak ere ez. Garbiguneetara eroatea da egokiena.

Gogoratu tetrabrikak, plastikozko edukiontziak eta latoizko kontserba poteak bota behar ditugula edukiontzi honetara. Ahalik eta gutxien okupatzeko moduan botatzea komeni da. Plastikozko poltsak ere bertara bota ditzakegu; tartean edukiontzi berdera eta urdinera zakarrak erroteko erabili ditugunak.

Edukiontzi berdea

Akatsik ohikoena beira barik kristala edukiontzi berdeetara botatzea da. Ez dira bertara bota behar ispiluak, ate eta leihoetako kristalak, bonbilak eta fluoresenteak, edalontziak, kopak, pitxerrak eta portzelanazko irudiak. Gogoratu botilak eta kontserba poteak tapa eta kortxo barik bota behar direla.

Edukiontzi urdina

Paperak eta kartoiak zatituta eta ahalik eta tolestuen bota behar dira edukiontzi honetara. Horrela eginez gero, norberak daroan paper eta kartoi gehiago sartzeaz gain, besteentzako leku gehiago izango du edukiontziak. Kontuz ibili plastikoz forratutako kartoiakin.



Plastikozko poltsez betetako munduari, agur

Erreketan, arboletan... geratzen dira sarri erabiltzen ditugun plastikozko poltsak

Birziklatzeko gaitzak dira, eta sarritan, gainera, birziklatzera ere ez ditugu eramaten. Plastikozko poltsak murrizteko Hondakinen Plan Nazional Integrala dela-eta, orain berrerabiltzeko poltsa ugari daude merkatuan. Supermerkatuek, dendek... horrelakoak eman edo saltzen dizkigute. Plastikozko poltsek, baina, hondakin izaten jarraitzen dute, eta haize handiko egunetan eta euriteen ostean gure arbola eta erreketan kolore guztietako plastikoak ikusten ditugu.

Talde ekologistak aspalditik dabilta plastikoen erabilera murrizteko eskatzen. Biztanle bakoitzak 97.000 tona erabiltzen ditu urtean. Eta horietatik %10 baino ez da birziklatzen. Ingurumenean kalte ugari sortzen dute plastiko horiek. Datu batzuk ikustea besterik ez dago:

- Deskonposatzea kostatu egiten zaie: 400 eta 1.000 urte bitartean.
- Birziklapena garestia da; plastiko gehienek erraustegietan amaitzen dute.

- Itsasoan, batez ere, hainbat animalia-
ren heriotza eragiten dute. Hainbat espezie
galtzeko zorian daude. Batzuetan, anima-
liek iruntzi egiten dituzte plastikoak.
Ekologistek diotenez, itsasoan, kilometro
karratuko, 18.000 poltsa topa ditzakegu.

Plastikozko poltsez gain, janaria biltzeko
plastiko, erretilu eta kartoiak aipatu behar
ditugu. Birziklatzeko gaitzak diren hainbat
elementu, poliespana tartean, daude egu-
neroko hondakin horien artean. Erosketak
egiterako orduan enbalaje gutxiko produk-
tuen alde eginez, hondakinok gutxituko
genituzke.

Gure helburua: zure ongizatea Nuestro objetivo: tu bienestar

Gizartearen bizitza kalitatea zuzenean lotuta dago uren kalitatearekin. Ekosistema osasuntsua kalitatezko urari esker da iraunkorra, izan ere, horrek pertsonen ongizatean aurrera egiten laguntzen du.

La calidad de vida de las sociedades depende directamente de la calidad de sus aguas. Un ecosistema saludable es sostenible gracias a un agua de calidad, que permite avanzar en el bienestar de las personas.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

BERTSOLARITZA > ELKARRIZKETA



A. Domínguez

“Gustura nabil bertsoetan, eta aprobetxatu egin gura dut aukera”

Umeei bertso-gintzarako gustua transmititzen saiatzen da Berrizko bertso-eskolan **Miren Amuriza**: bertso-gintzaren giroan sartzea, lantzean behin bertso-saioetara joatea, “euren bidea egin dezaten gero”. Kristina Mardarasek Durangaldeko bertsolari onenaren txapela Mireni zelan jantzi zion emozioz ikusi zuten bertso-eskolako umeei. Bizkaiko txapelketarako txartela lortu zuen Mirenek Berrizen

Zelako akordua duzu zapatu-ko finalarena?

Ondo pasatu eta disfrutatzen dugunean esaten dugun bezala, lehengoan nahikoa sufritu nuen: nahikoa izerdi bota nuen egia esan. Saioa hasi aurretik tri-pako min apur bat beti izaten dugun arren, normalean saioa hasi orduko egoten gara urdurien. Zapatuan aldrebes gertatu zitzaidan: trankil-trankil hasi nintzen, eta saioa aurrera joan ahala larritu nintzen.

Zerk urduritu zintuen?

Beste batzuetan gertatzen ez zaidana igarri nuen: batzuetan errima eta ideiak berez-berez etortzen badira ere, kontrakoa

igartzen nuen, ataskatuta nentzela, tiraka eta tiraka. Kostata etortzen ziren ideiak. Beti egoten dira egunak eta egunak, eta Abarkas eta Lazkanok ere esan zidaten, seguririk Euskal Herriko txapelketako finalerdi batean trankilago ibiliko nintzela lehengoan baino. Ez zen presioa ere, baina herrikideak nituen aurrean, denak “benga Miren, egingo duzu, badakigu baietz” animatzen. Jendeak intentzio onenagaz esaten dizu, eta gura ala ez, euren aurrean zeozer demonstratu beharra sentitzen duzu. Beharbada, azkenengo txapelketan izan nuen zorte onak jendeagan espektatibak sortu zituen, eta pisutxo hori baneukan, eta igarri egin nuen azkenean.

Saioak utzi dizun akordua, hori, baina, eta ostekoa?

Saioaren akordua dena dela, ez da dena txarra, izan ere, oso emozionantea baita herriko jendea, nire auzoko baserritarrak, bertso-eskolako umeei, emozio-natuta ikustea. Saioaren alde hori ere gordetzen dut. Saioaren ostean beste horrenbeste: herri-tarrak nigatik eta Gorkagatik hain pozik ikustea asko eskertzen da. Sentipen hori gordeko dut batez ere.

Orain urte biko finalagaz alderatuta zelan sentitu zinen?

Oso desberdina izan zen Garai-koa: lehenengo aldiz hartzen nuen parte eskualdekoan, eta

“Herrikideak nigatik eta Gorkagatik hain pozik ikustea asko eskertzen da”

“Bizkaiko finalean lekutxo bat egiteko aukera izan genezake aurten”

nobedade izate hutsagaz puntu batzuk irabazten dituzu. Trankil nengoen orduan. Lazkanok irabazi zuen eta bigarren egin nuen nik. Aldrebes izan da orain-goan. Zapatuko finalera arteko bi urteotan asko jardun dut bertsoetan, eta segurtasun handiagaz dihardut: bertsoetan dezente hobetu dudala uste dut.

Gorkagaz buruz-buruz gustora jardun zenuen?

Izenak entzun nituenean trankildu nintzen, pisu apur bat kendu nuen, eta ofiziok hasi ginean pentsatu nuen, “bueno, oraintxe egin behar dugu zeozer polita”. Baina egia esan, ez zen gura bezala atera. Gorka bai ibili zen neu baino gusturago.

Bizkaiko txapelketara orain. Zer helburugaz zoaz?

Nik uste dezente trankilago joango naizela Bizkaikora. Bai nik eta bai beste batzuek ere aurten aukera handiak ditugu finalean lekutxo bat lortzeko, edo finalerdietan papel on bat egiteko behintzat. Uda tartean egonda, ondo preparatu eta gogotsu ekingo diot, ahal denik ondoan egiteko.

Txapelketak, saioak, hitzordu piloa azkenaldian.

Bai, lehen hilean saio bi egiten banituen, asteburu hiru izaten ditut orain. Aldaketa handia izan da, eta norberak neurria hartu arte oso gaitza da denbora ondo organizatzea. Aldi berean baina, momentu honetan gustura nabil bertsoetan, eta aukera hau aprobetxatu behar dudala argi daukat. Oso konsziente naiz hemen-dik urte batzutura, gazteagoak eta hobeak etorriko direla, eta hau-xe dela nire momentua.

Zelan ikusten da bertso-eskolatik bertso-gintza.

Lehen zazpi-zortzi ikasle egoten ziren Berrizko bertso-eskolan, eta 13-14 dira aurten, eta datorren urtean gehiago dira etortze-koak. Berrizen, bai ume eta bai gurasoek asko eskertzen dute oso-osorik euskaraz den aisialdiko ekimen bezala. Asko gatzetxoak dira, eta lehenengo kontaktua dute bertsoari zuzenean, eta erdi jolasten jarduten dugu. Helburua ez da eskolarteko txapelketak irabaztea, baizik bertso-erako gustu hori har dezatela, giro horretan sartzea. ■ I.E.

IURRETAKO UDALERRIKO ENPRESA-PROIEKTUEN II. LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Helburua: Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko: 2010eko ekainaren 1etik urriaren 15era bitartean, Udaleko bukegoetan (Bidebarrieta 5).

Saria: 9000 €.



IURRETA ELIZATEKO UDALA

Tel.: 94 620 12 00
www.iurreta.net



AGENDA >

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, genda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Ekainaren 5ean, 19:00etan

'DER NAMENFEST. AITONAREN URTEBETETZEA'

Durango Bartolome Ertzilla musika eskolako kantu eta koru ikasleek eta orkestrak F.X. Süßmayr-ek konposatutako 'Der Namenfest' operaren moldaketa zuzenean entzuteko aukera izango da Elorrión. XVIII. mendeko jauregi batera eramango gaituzte bilobek; beren aitari, etxeko jaunari, antolatu dioten urtebetze festara.

ANTZERKIA

ZORNOTZA

» **'La lengua de las mariposas'** ekainaren 4an 21:00etan, Zornotza Aretoan.



BESTEAK

BERRIZ

» **II. Martxa Zikloturista** ekainaren 13an 09:00etan Berrizko udaletxetik irtenda. Zigor Etxezarragaren omenez.



» **Mendi irteera eta erreka garbitzea.** Irteera ekainaren 6an izango da. Azken urteetan legez, Urbiara irteera izango da. Horretarako kiroldedian eman beharko da izena. Erreka garbitzeko eguna, berriz, ekainaren 12a izango da.

11:00etan senderismo eta BTT ibilbideak irteera udaletxetik. Herri Kirolak Olaburu frontoian. 11:30ean esku pilota txapelketa arinak ume eta gazteentzako, Olaburu frontoian. 12:30ean Atletismo dibertigarria eta futbol guay Bixente Kapanaga eta Tellitu.

» **Iurreta txirrindulari elkarteak antolatutako ibilbidea** ekainaren 5ean 08:00etan Iurretan.

» **XXIII. Emakumeen Bira** lehen etapa ekainaren 10ean 16:45ean Iurretatik irtenda.

ZORNOTZA

» **Gazte diskoteka** 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat ekainaren 5ean 20:00etatik 23:00etara Zelaletan. Doakoa.

» **Gazte txoko 2.0** 14 urtetik gorako gazteentzako ekitaldia ekainaren 4an Zelaletan.

» **Gaur egungo zaborren kudeaketa** erakusgai, ekainaren 5era arte, Probalekuan.

» **Udalak antolatutako lehen mural lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa** antolatu dute, ekainaren 4ra arte, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era. Lan irabazlea ekainaren 4an jakinaraziko dute udal arduradunek.

IURRETA

» **'Kultur tailerren erakusketa'** ekainaren 9tik 11ra bitartean Ibarretxe Kultur Etxean. 11:00etatik 12:30era eta arratsaldean 17:30etatik 20:00etara.

» **Kultur tailerren ikasturteari amaiera emateko jaialdia** ekainaren 10ean 18:00etan.

ZORNOTZA

» **Zelaieta zentroko tailerren erakusketa**, ekainaren 15era arte ikusgai, Zelaletan.

1etik 15era eskaera betetzeko epea. Landakoko igerilekuetan. Zozketa ekainaren 18an egingo dute. Informazio gehiago lortzeko: www.durangokirolak.net webean edo 94 603 00 31 telefonoan.

ERMUA

» **Spinning ikastaroa** ostiralero 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen ematea: Udal kiroldegian.

BERBALDIA

ABADIÑO

» **'Mali'** ekainaren 10ean Oskar Markinez (Abadiño) eta Eneko Espino (Gasteiz), 19:00etan Errota kultur Etxean.

DURANGO

» **Ekainaren 17ra bitartean 'Arkeologia eta Historia' izeneko hitzaldi zikloa** burutuko da Etxezarreta Jauregian (Durango Museoan). **Ekainaren 10ean**, 19:00etan: 'Historia lurpetik ateratzen Lo que empieza cuando termina la excavación. Los trabajos de laboratorio en Arqueología' Lorena Elorza arkeologoaren eskutik.



DURANGO

» Ibaizabalen X. urteurrena ospatzeko ekitaldiaren barruan. **Ibaizabal extrem** hainbat kategoriatako



oztopo lasterketa (erreka, lastoak, gurgilak, kableak...) ekainaren 12an 11:00etan Ibaizabal Ikastolako tabernan. Sariak egongo dira. Izen ematea: 94 621 6021 edo 667 786 384 telefonoetan.

IURRETA

» **Kirol Jaia** ekainaren 6an. 08:00etan Martxa Zikloturista Aita San Migel plazatik irteera.

DEIAK

DURANGO

» **Odola emateko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

IURRETA

» **Udaleku Ibiltariak** Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta **Udaleku Finkoak** Ozaetan, uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkartea.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

» **Astelehenero jaiak antolatzeko batzarrak** egingo dira, 20:00etan, IMIko lokaletan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

» **'Naturari'** Patxi Badiola argazkilarik Euskal Herriko kostaldean jasotako irudiak ikusgai, ekainaren 13ra arte, Kultur Etxean.



IKUS-ENTZUN

ELORRIO

» **'El poder de la palabra'** hileko film dokumental berria Iturri Kultur Etxean ekainaren 10ean 19:30ean.



JAIK

ABADIÑO

» **Ezpatadantzari eguna** ekainaren 5ean Abadiño probalekuan inguruan 17:00etan. 19:00etan Dantzari dantza guztiok batera egingo dute. Ondoren Soka dantza plazaratzeko. 21:30ean lagun arteko afaria izango da probalekuan eta giroa alaitzeko erromeria Ansorregi taldearekin 23:00etan.

DURANGO

» **Euskal Astearen baitan ekainaren 4tik 13ra Pintura Erakusketa Ezkurdi Udal aretoan**, Esku pilota jaialdia, "Peter" en oroimenezko finalak. Ezkurdi Jai Alai Pilotalekuan. **Ekainaren 5ean** 19:00etan **kalejira**, Tabira musika banda eta Elgoibarko dultzaineroak. 19:30ean **Kontzertua** Andra



Mariako elizpean. 20:00etan Txistu Kontzertua San Agustinen.

Ekainaren 6an Julene Azpeitia lehiaketaren sari banaketa, San Agustin Kultur Gunea 12:00etan. IX. Euskal Astea **zesta punta txapelketaren semifinalak** 12:00etan Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

IKASTAROAK

DURANGALDEA

» **AEK-k dagoeneko zabalik du matrikula epea udan euskara ikasi nahi duen ororentzat. Euskalduntzea eta EGAko azterketak prestatzeko 100 orduko ikastaro trinkoak. Izen ematea: ekainaren 22ra arte. Durango Abarrak eta Elorriko Abizari euskaltegiatan: euskalduntzeak ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Hirugarren maila eta EGA prestatzea ekainaren 21etik uztailaren 16ra. Berrizko AEKn uztailaren 5etik uztailaren 26ra. AEK **Barnetegi ibiltaria 2010 Iurretan** uztailaren 3tik 18ra Izen emateko azken eguna ekainaren 24ean. Beste aukera uztailaren 17tik 31ra. Izen emateko azken eguna: uztailaren 8a. **Zornotzako AEK** euskaltegia ekainaren 21etik uztailaren 16ra.**



DURANGO

» **Udako kirol ikastaroak** 3-5 urte, 6-14 eta nagusientzat zuzendutakoak. Hainbat ekintza aukeran: Spin Bike, Aquabike, Aquagym, circuito express, tenis eta padel. Ekainaren

ekaineko agenda

Ekainak 5-12-13 • Txirrindulari elkarteak
08:00 Ibilbide ezberdinak (90-143km)

Ekainak 6 • Kirolari atekak zabalik
08:00 Zikloturista marxa Aita San Migel Plazatik
11:00 Senderismo irteera udaletxetik / 11:00 Herri kirolak Olaburu
11:30 Esku pilota Olaburu / 12:30 Futbol Guay Bixente Kapanaga eta Tellitu
12:30 Atletismo dibertigarria Bixente Kapanagan

Ekainak 9-10-11 • Erakusketa Ibarretxe K.E.
11:00-12:30/17:30-20:00 Eskulanak, egur-lanketa, argazkigintza, pintura, ingelez eta euskera ludikoa eta jostura ikastaroen erakusketa kultur etxean

Ekainak 10-11-12-13 • XXIII. Emakumeen Bira
10ean, 1. etapa 16:45 Iurreta-Iurreta (88,4). Agerraldia Olaburu frontoian
11n, 2. etapa 16:00 Lekeitio-Lekeitio (112,4km)
12an, 3. etapa -1. sektorea- 10:00 Elorrio-Elgeta (5,9km) -2. sektorea- 16:30 Iurreta-Zuia (78,5km)
13an, 4. etapa 10:30 Orduña-Orduña (126km)

Ekainak 10 • Kultur tailerren jaialdia
Ikasturte amaierara. 18:00 Gimnasia, yoga, eta saloi, sabel eta euskal dantzak agerraldia

Ekainak 15-16 • Herri Biblioteka
15ean, 19:00 Irakurketa Kluba / 16an, 19:00 Helduen irakurketa Kluba

Ekainak 18 • IV. Kalezkale
17:15 Aurkezpena eta Mikel Deuna kultur taldeari omenaldia / 17:30 Potxin eta Patxin, Amilburun

IURRETAKO UDALA



12:00etan **Kalejira** Durangoko trikiti eta pandero eskolak, Bartolome Ertzilla musika eskolako txistulariak, Jaizale **Durangaldeko txistulari elkarte**a, Txoritxu Alai, Tronperri. **Ekainaren 10ean** 09:30ean, **Baserriko jolasak** Andra Mariako elizpean.

ERMUA

- » **Kulturarteko jaialdia** ekainaren 5ean; musika, erakusketa, gastronomia, artikulatza... 11:00etatik Orbe kardenalaren plazan. Ermuko GKEek antolatuta.
- » **Extremadurako etxearen kultur astea.** Ekainaren 6a arte Extremadurako kultur zentroan.

LEHIAKETA

ELORRIO

- » **Ferixa Nausiko kartel lehiaketa 2010** martxan dago, lanak aurkezteko epea ekainaren 15ean amaitzen da, 14:00etan.

ERMUA

- » **Postal lehiaketa**, oporretara edonora zoazela ere hango postala bidali Euskal Birusa elkartera (247 postakutxa 48.260 Ermua) irailaren 14a baino lehenago eta saria lortzeko aukera izango duzu. Lau sari banatuko dira.

IURRETA

- » **Aita San Migel jaietako kartel lehiaketan parte hartu** eta lanak aurkezteko azken eguna: ekainaren 18a izango da, Kultur Etxean.

MUSIKA

BERRIZ

- » **Seiurte eta Sorkun** Ekainaren 4an, 23:00etan, Gaztetxean.
- » **Berrizko musika jaialdia.** Ikasleek ez diote huts egingo urteroko hitzorduari ekainaren 4an 21:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

- » **Soulrisers** taldearen kontzertua ikusteko aukera ekainaren 4an, 22:00etan, Plateruenean.
- » **V. Durang(h)ots Jam session**



ekainaren 10ean 21:00etan Plateruenean.

- » **Txelo kontzertua** Nerea Aizpurua-ren eskutik ekainaren 8an

18:00etan musika eskolako aretoan.



ELORRIO

- » **'Das Namenfest. Aitonaren urtebetetzea'** umeen opera eskainiko dute, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako bakarlari, orkestra eta koroak. Emanaldia ikusteko aukera ekainaren 5ean 19:00etan Arriolan.


ZINEKLUBA

DURANGO

- » **'Tosca' Opera HD zuzenean** ekainaren 10an, 20:30ean, Zugaza zinema aretoan ikusgai.

ERMUA

- » **'Ander'** ekainaren 10ean arratsaldeko 19:00 eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean ikusteko aukera.



Ekainaren 4an, 23:00etan

SORKUN ETA SEI URTE

Sorkunek bere ibilbideko kantuak abestuko ditu; Kashbad taldeko kide zeneko abestiak eta bakarlari moduan sortutakoak, baina beste doinu lasaiago batzuekin, gitarren distortsioa apur bat baztertu du abeslariak. Berrizen modu akustiko, doinu minimalagoan eta melodia landuagoekin abestutako kantuak aurkeztuko dizkigu Sorkunek.


ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Kick Ass (digital)

Zuzendaria: Matthew Vaughn
barikua 4: 19:00/22:00
zapateria 5: 19:30/ 22:30
domeka 6: 19:30/22:30
astelehena 7: 19:00/22:00
martitzena 8: 20:00



Umeentzako zinea

Prince of persia (digital)

zapateria 5: 17:00
domeka 6: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

80 egunean

Zuzendaria: Jon Garaño, Jose Mari Goenaga
zapateria 5: 22:30
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

La isla interior

Zuzendaria: Dunia Ayaso eta Félix Sabroso
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:00



BOTIKAK

- Barikua, 4**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Zapateria, 5
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun etorb. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• De Diego/ Sanroma/ Balenciaga/ Unamunzaga/ Navarra/ Campillo
• Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
09:00-09:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Domeka, 6
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Astelehena, 7
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
09:00-09:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Martitzena, 8
09:00-09:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Eguaztena, 9
09:00-09:00
• San Roma (Uribarri 5 - Durango)
Eguena, 10
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Matiena)
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

14° 29° BARIKUA ☀️
Zeru garbiarekin esnatuko da eguna eta eguzkia jaun eta jabe izango da egunsentiaz geroztik. Arratsaldean eta gauean behe-hodei batzuk ager daitezke. Haizea ekialdetik ahul ibiliko da.


14° 26° ZAPATUA ☁️
Goizean hodeiak eta urdingune zabalak tartekatuko dira. Arratsaldean, eguneko bero pilaketaren ondorioz, trumoi-lainoak garatuz joango dira eta ekaitz-zaparradak bota ditzake. Haizeak ipar ukitua hartuko du.

15° 23° DOMEKA ☁️

14° 24° ASTELEHENA ☁️

13° 16° MARTITZENA ☁️

Andoni naitz,
ESANDAKOA BETETZEN DUT.



KIROLAK >



Argazkia: Ana Dominguez

Liga amaituta, arnasa lasai hartzeko zain

Denboraldi gorabeheratsua izan du Kurutzia ligan. Lesioen ondorioz, ezin izan diote erregulartasunari eutsi, eta bigarren taldera pentsatu baino gehiagotan jo behar izan dute jokalariek. Liga amaiera txukun baten ondoren, salbaturik behar luketenean, oraindik ezingo dute arnasarik lasai hartu, beste hilabetez. Gora-goko mailetako jaitsierengatik,

baliteke bost taldek maila galtzea euskal ligan, eta Durangoko taldeak azken laugarren amaitu du. Bulegoetan gertatzen diren mugimenduei adi egon beharko dute.

Euskadiko Futbol Federazioak ekainaren 30ean jakinaraziko du jaitsiko direnen zerrenda definitiboa. Ordura arte, "zenbat eta talde gehiago fusionatu, desagertu... zenbat eta mugimendu gehiago egon, aukera

gehiago izango dugu mailari eusteko", dio Rober Perez Kurutzia jokalariek.

Denboraldi hasieran ez zuten pentsatzen beheko postuetan ibiliko zirenik: "Taldea ona osatu genuenez, sailkapenaren erdi inguruan lasai ibiliko ginela pentsatu zuten". Kurutzia taldearen helburua talde nagusia lehiakortasuna segurtatuko zuten jokalariekin osatzea zen, apurka-

apurka, B taldeko jokalariei ere goikoekin lehiatzeko aukera eskainiz. Lesioek eta talde bien partiduetan orduetegi antzekoa izateak asko mugatu ditu hasieran finkatutako helburuak.

Datorren denboraldiari begira, "aldaketak egongo direna argi dugu, bai jokalarien aldetik bai klubaren izaeraren aldetik, baina oraindik ezer erabaki barik dago".

Sasikoa B goian

Maila berean Sasikoa B goiko postuetan ibili da denboraldi osoan. Durangoko taldeak laugarren amaitu du hirugarrenagaz puntuetara berdinduta. Jokalari batzuk ohorezko A mailan dabilen taldeagaz jokatu dute sarritan, eta horregatik ez du bigarren taldeak gorago amaitu. Hala ere, liga txukuna osatu dute. ■ J.D.

Goiko mailetako jaitsierak direla-eta, Kurutzia ez daki oraindik mailari eutsiko dion ala ez

18 Biharko Izarrak azken txanpan

Atzo finalerdiak jokatu zituzten Mallabiko pilotalekuan. Finalak datorren barikuan izango dira. Antolatzaileak gustura daude frontoira joandako zale kopuruagaz.

19 Borja Abasolori elkarrizketa

Cafés Baqué taldeko txirrindulari gaztea Bizkaiko txapelidun geratu da oraintsu. Holango garaipenak aurrera jarraitzeko animoa eta indarra ematen dutela dio abadiñarrak.



Gorkak eta Ezkurdiak tika-taka ibili zuten aurrean finalerdietarako txartela lortu guran. Kepa Aginako

Inoizko ikuslerik gehien Biharko Izarrak-en

Mallabiko pilotalekuak sarrera oso onak izan ditu; hilaren 11n jokatu dute finala

Biharko Izarrak pilota txapelketaren zazpigarren aldia azken txanpan sartuta dago eta antolatzaileak benetan pozik daude orain artekoarekin. Carlos Garciak frontoira "inoiz baino pilotazale gehiago" batu dela dio "eta ez zen erraza aurreko aldietakoa gainditzea". Partiduen mailak ere lagundu du pilotalekua betetzen,

lehia asko "biziak eta emozio handikoak" izan direlako.

Finalerdiak atzo gauean jokatu zituzten (emaitzak www.anboto.org-n ikusgai). Azpiri-Linzoain eta Mendizabal-Merino izan ziren aurrez aurre lehenengo partiduan eta Gorka-Galarraga eta Elezkano-Landaburu bigarrenaren. Merinok las-

ter Aspegaz debutatuko du profesionalean. Final handia ekainaren 11n jokatu dute, 20:00etatik aurrera.

Biharko Izarrak txapelketan lau t'erdiko txapelketa ere jokatzen dute eta finala erabakita dago: Urionaetxebarria markinarak Jaka amezketarraren kontra jokatu du. Orain arteko ibilbidea ikusita partidu pareketa aurreikusten da. ■J.D.

Lau t'erdiko finala erabakita dago: Urionaetxebarria eta Jaka lehiatuko dira

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Beteranoen garrantzia

Adin batera helduta ia kirol gehienetan agur esateko momentua heltzen da. Batzuk arinago batzuk geroago baina azkenean lehiaketak duen eskakizunari aurre egin ezin izaten gara, eta kirola utzi egiten dugu.

Hori normalean bat-batean gertatzen da eta bizitza kirolaren inguruan antolatzen ez ez egitera pasatzen dira hainbat kirolari; horrek estetikoki aldatuak dakartza, baina baita osasun aldetik ere.

Hala ere, nik beste ikuspuntu bat azaldu nahi dut, beterranoek edozein klubetan bete dezaketelako paperean inguruan. Nire ustez ezinbestekoak dira klubarentzat; alde batetik klub horren historiaren lekuko eta igorle direlako, kluba nola eta zertarako sortu zen, bidean izandako oztopoak, une txarrak baina baita momentu gozoak ere, eta guzti horren berri belaunaldi gazteenek izan beharko lukete. Bestetik gazteen eredu eta ispilu bihurtu daitezke, eta hori modu askotan landu daitezke, entrenamenduetan beraie ezagutzak zabalduz, entrenatzaile moduan arituz, partidak ikustera joanez...

Gu gure klubetik beterranoen taldea indartu nahian gabilta, aurreko asteburuan hiruko partida izan genituen Arrasaten eta kilo batzuk gehiago izan arren uste dut denok gozatzeko eta disfrutatzen paradak izan genuela. Emaitza ez zen garrantzitsua, lagunekin eta kirolarekin gozatzeko eskaintako aukera baizik.

Amaitzeko pare bat gauza, beterranoen taldeko partaide izan nahi dutenek aukera dutela (baldintza bakarra 35 urte edo gehiago izatea) eta bigarrena, aurreko batean aipatu nuen Miarritzen partida zegoela, eta talde frantsesa zela esan ondoren hainbatek belarritik tira egin didate, argi dago lapsus linguae izen zela eta Ipar Euskal Herriko taldea dugula.

Ondo izan eta uda ondo pasa.

Adituarentxokoa

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2010-2011

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

Izen-ematea
Maiatzaren 31tik ekainaren 11 arte

Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13a arte

ESKAITZA AKADEMIKOA

MGEP

Oñati Gestio Heziketa

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a

Lanerako gertu!



“Garaipenak aurrera jarraitzeko indarberritu egiten zaituzte”



Aurtengoa hirugarren denboraldia du Cafés Baqué taldean.

Borja Abasolo 21 urteko abadiñarrak hirugarren denboraldia du Cafés Baqué. Oraintsu, Bizkaiko txapelkun geratu da Berriatuan. Gazte mailak utzi zituenetik podiumeko koska gorenera igo den lehenengo biderrean txapela jantzi du.

Berriatuan Bizkaiko Txapelketa irabazi zenuen. Zelan joan zen lasterketa?

Lasterketak sei mendate zituen eta horietako bi oso gogorrek ziren; Santa Eufemia eta Kalbario. Azken hori gotzen 25 txirrindulariok taldetxoak geratu zen aurrean. Berriatura heldu aurretik dagoen koska gogorrean bost txirrindulariok aurrera egin genuen, baina akordiorik lortu ez eta berriro taldeak harrapatu gintuen. Argi zegoen lasterketa sprintean erabakiko zena. Ahalik ondoen kokatzen saiatu, burua makurtu eta nituen guztiak eman nituen. Bosgarren amaitu nuen eta neu izan nintzen 23 urtez azpiko lehena.

Txapela lortzeko aukerak ikusten zenituen ala sorpresa izan zen?

Holango txapelketak beti daude txirrindulari baten buruan, baina

gatxa da. Banekien sasoiko nengoela Bidasoako itzulia egitetik nentorrelako, baina euripean ere ibili ginenez, katarro apur bat nuen. Beraz, ez nekien goputzak zelan erantzun zuten. Lehenengo kilometroetan kostatu zitzaidan, baina lasterketak aurrera egin ahala gero eta erosoago ibili nintzen.

23 urtez azpiko lehenengo garaipena izan duzu. Txapelagaz estreinatu zara.

Gazte mailatik ez nuen lasterketarik irabazten eta gogo ikaragarria nuen garaipena lortzeko. Gogor lan egin dut horretarako. Euskal Herrian afizionatueta maila handia dago eta irabaztea asko kostatzen da.

Hainbeste lan egin ondoren “bazen garaia” esango zenion zeure buruari.

Batzuetan ez dela helduko pentsatera heltzen zara. Une txarrak dira. Ez zarela kapaz uste duzu. Une horietan burua argi izan behar da eta zeure aukeretan sinestu behar duzu. Bizkaiko Txapelketa lako garaipenak indarberritu egiten zaituzte eta aurrera jarraitzea animatu. Egunen baten profesional izateko ametsa errealitate bihurtzeko gogor lan egitera bultzatzen zaitu berriro. Energia ematen dizu.

“Urterik urtera hobeto nabil; esperientziak ere laguntzen du”

Cafés Baqué daramatzazun hiru urteetatik ondoen zabilzana aurtengoa da?

Urterik urtera hobeto nabil. Esperientziak ere asko laguntzen du. Egia da aurtin inoiz baino hobeto nabilena. Lasterketak korritzen noan heinean konfiantza gehiago hartu dut eta, zorionez, heldu da lehenengo emaitza handia.

Sarritan konfiantza kontua da.

Egia da, askotan buruan dago gakoa. Taldeak eta zuzendariak ere asko lagundu didate, nire aukeretan sinestu dutelako.

Zein arlotan hobetu behar duzu?

Igoeretan. Inguruan mendi asko dago eta azken metroetan azkarrak banaiz ere, igoeretan aurrean mantendu ezik, ezin dut bizi-tasun hori aprobetxatu. Alderdi hori hobetzen badut, nire abiadurari etekin hobea aterako diot.

Mendiz inguratuta gaudela aipatu duzu. Oraintsu kadete mailako lasterketa bi antolatu dituzte Erorrioko harlauzan, klasikoen antzera, gazteei beste modalitate bat probatzeko aukera eskainiz.

Ekimen polita dela deritzot. Gaztetxoak txirrindularitzara erakartzeko lasterketa egokiak dira.

Telebistan Paris-Roubaix lako lasterketa handiak ikusten dituzte eta sentsazio horiek lehenengo pertsonan bizi dituzten aukera ematea txalagarria da.

Aurtin Cafés Baqué 23 urtez azpikora mugatu du taldea.

Mundu profesionalak azken aldian hartu duen joeragatik izan da. Gero eta txirrindulari gazteagoak eskatzen dituzte eta talde amateurrek eskakizun horietara moldatu behar dira.

Lan egiteko moduan aldaketa handirik gertatu da taldean?

laz arte maila handiagoko lasterketetan parte hartzen genuen; Espainiako Kopan, esaterako. Aurtin txirrindulari gazteagoak daudenez, Euskaldun Torneora eta holakoetara mugatzen da. Prestakuntza gehiago lantzen da. Hala ere, lasterketei aurre egiteko modua betikoa da. Borrokariak izaten eta lasterketa guztietan aurpegia ematen ahalegintzen gara.

Aurtengoa duzue Joseba Beloki-gaz lehenengo urtea.

Oso gustura gaude beragaz. Aholkularitza arloan zein bestelako kontuetan ahal duen guztian laguntzen digu eta taldeari asko eman dio.

Dani Díaz argentinarrak ere galdetu gura dizut. Orain hile bi fixatu zuten eta ederto dabil.

Denboraldi itzela osatzen dabil. Bost garaipen lortu ditu denbora gutxian. Argentinan San Luisko Tourra korritzetik zetorren, profesionaletan, eta horrek laguntzen du, baina Cafés Baqué eskainitako aukera bikain aprobetxatzen dabil. ■ J.D.

“Joseba Belokirekin oso pozik gaude; taldeari asko ematen dio”



‘Peter’-en oroimenezko txapelketako finalak gaur

Jose Mari Agirre ‘Peter’-en Oroimenezko Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur, 19:00etatik aurrera Durangoeko Ezkurdi Jai-Alain. Nagusietan Etxebarria eta Barrenetxea Urberuaga eta Varelaren kontra ibiliko dira. Aurretik gazte mailako finalak jokatu dituzte Gutierrez-Camarak eta Lejarzegi-Zilaurrenak.

Durango Pelotazale Kluba pozik dago txapelketaren harreragaz. 40 urte baino gehiagoan pilota klubeko sortzaile eta arduradun izan zen ‘Peter’ oroitzeaz gainera, Durango pilotaren erdigune bihurtu dute berriro eta horregatik, datorren urtean ere antolatzeke asmoa dute. ■ J.D.

Agirrebeitia Austrian da enduro proban parte hartzeko

Jon Agirrebeitiak Austriako Erzberg Rodeo motor enduro proban parte hartuko du. Gaur 1.500 motorzale egongo dira irteera puntuan eta 500 sailkatuko dira domekako lasterketarako. Agirrebeitia itxaropentsu dago eta domekarako sailkatuko dela uste du. “Ilusioz gainezka” dagoela adierazi du eta ez da gutxiagorako lasterketa berezia baita; sasoi batean harrobia izandako zirkuituan ibiliko da gora eta behera. Gernika Off Road taldeko kideak ere ondoan izango ditu.

Lasterketa Munduko Kopako hirugarren proba da. Italian izandako lehen proban ere parte hartu zuen. ■ J.D.

Lehenengo Judo Stagea izango da asteburuan Durangon

Durango Judo Klubaren egoitzan barikuan hasi eta domekara arte, Wolfgang Heindel munduko txapelkunak hainbat ikastaro eskainiko ditu. Lau saiotan banatuko da Heindelen emanaldia. Lurreko judoa, zutundutako judoa, koordinazio eta prestakuntza fisikorako ariketak, randori librea eta aurrez prestatutako eszenetan, jokoak eta tailerrak izango dira ekitaldiaren oinarri. Barikuan, arratsaldeko 19:30ean hasiko da ikastaroa. Helduek 20 euro ordaindu beharko dituzte; umeek 10.

Wolfgang Heindel munduko txapelketa izan zen 2004an, eta hainbat modalitatean espezialista da. ■ J.D.



anboto.iragarkilaburrak.com

parrila. 3 bateria; bat motorrarena eta beste biak la-guntzaille gisa. Kristal tindatuak. Distribuzio korrea eta errebizio osoa egin berri. 635 70 39 43 Unai

MOTORRAK

SALDU
Scooter suzuki burgman 250 salgai.. Scooter Suzuki Burgman 250 salgai. Kolore urdina. 2008 urtekoa. 5000 km. Egoera oso onean. Prezioa 3800 euro transferitua. Tel.: 626 15 88 22

GAINERAKOAK

EROSI
Bizikleta eramateko euskarria erosteko prest. Furgonetan bizikletak eramateko euskarria erosteko prest nago. Tel.: 671841563

Harremanak
NESKA BILA
Neska-lagun bila. 42 urteko gizona neska-lagun bila. Telefonoa: 626 86 49 71

Aisia/kirola
KIROLAK
SALDU

Sailfish vibrant neopreno berria salgai. Gama altuko neopreno berria salgai. Gizonetzkoen "S" neurrikoa da (165-178 cm/68-75 kg).

ANIMALIAK
SALDU

Untxi grisak salgai. Untxi gris eder eta handiak eta baserriko oilaskoak saltzen ditut, ondo zainduta eta elikatuta daude. Interesatuak

deitu telefono zenbaki honetara. Gaez bakarrik deitu, mesedez. Telefonoa: 94 681 90 85 (Juan)

EMAN

Txakurra ematen da. 7 urteko txakurra daukat doan emateko. Arraza: Husky/Boxer. Baserria zaintzeko aproposa da. Interesatuak deitu 618204793

MUSIKA/PELIKULAK/LIBURUAK
SALDU

Trikitixa salgai. Trikitixa salgai 1.000 euro. Telefonoa: 687 28 19 81

SARRERAK
SALDU

AC/DCren kontzerturako bisarrera salgai. Bilboko kontzerturako AC/DC zuzenean ikusteko sarrera bi saltzen ditut. Telefonoa: 671 84 15 63

Familia/etxea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
SALDU

Arkoizozkailua. Inork arkoizozkailua nahi badu, badugu bat, 1,45m luzera, 0,89m altuera eta 0,63m sakonera. Zaharra da baina ondo dabil. Bila etorri behar da Galdakaora. Trukean irrati estudio baterako mahai ez handiegi bat edota bulego materiala gustura hartuko genuke.

Ohea, koltxoia eta somierri salgai. Metalezko es-

truktura duen ohea, Pikolin Normablock koltxoia eta laminadun somierri salgai (160x200 cm-koa). Banaka saltzeko aukera ere badago. Oso ondo zainduta. Koltxoia 4 urte ditu, baina oso egoera onean dago.

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK
SALDU

Chicco aulkia, 3 osagaiekin: kukoa, moisesa, aulkia. Trio Chicco delakoa, egoera onenean. Honekin batera beste moises bat eustekoa eta hamaka bat oparitzen ditut. Nahi duzuean ikus dezakezu.

Neskato arropak eta oinetakoak. 100 ale, neska txikiarentzat (3 hilabetetik 12 hilabetera) eta oinetakoak, 5 pare, sasoi onenean.

Leku hau zure iragarkiaren zain dago

INMOBILIARIAK

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Salbigain, 11 (barra F. J. de Zumarraga kalea)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • ietxetxo@hotmail.com

ETXEBIZITZA SALGAI

ABADINO

- Solokoa: 90 m2. 3 logela, egongela handia eta sukaldea despentsarekin. Berogailua. 3 terraza.
- San Trokaz: Erdi berria. 2 logela.
- Abadiño: Bifamiliarra. 300 m2. 290 m2-ko lorategia.
- Ezkurdi: 138 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- Oiz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Orientazio ona.
- Mikeldi: 105 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara. 249.400 .
- Antso Estegiz: 2 logela. Berriztatua. 198.000 .
- Durango: 120 m2. 4 logela eta 2 komun.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela eta 2 komun.
- Madalenoste: Erdi berria. 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Untzillab: Erdi berria. Trastelekua eta garajea.
- Astepe: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Alluitz: 105 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Tabira: Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Trastelekua eta garajea.
- J. Olazaran: Erdi berria. 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Durango: 2 logela. 156.300 .
- Montevideo: (Jesusak). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- San Inazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1. go solairua.
- Tabira: 80 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz jantzia. Garajea aukeran. 216.400 .
- Mendizabal: 2 logela eta egongela. Erdi berria. Ganbara eta garaje itxia. Eguzkitsua.
- Plateruen plaza: 2 eta 3 logelako etxebizitza. 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. 400 m2. Garajea 5 kotxerentzako.
- ATXONDO: Txaleta. 4.000 m2-ko lursaila.

IURRETA

- Dantzari: 3 logela. Berogailua. 192.000 .
- Bixente Kapanaga: 110 m2. 4 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiarre: 3 logela eta egongela. 2 terraza.

NEGOZIOAK

- Tabira: 50 m2. Alokairuan edo salgai.
- Taberna -jatetxea: 230 m2. 70 pertsona. Alokairuan edo salgai. Funtzionamenduan.

BERRIZ

- Iturria: 75 m2. 3 logela. Igogailua. Trastelekua. 177.300 .
- Legaña: 2 logela eta egongela. Balkoia. Eguzkitsua.
- Bernardo Gabiola: 70 m2. 3 logela. 171.000 .

ZALDIBAR

- San Andres: 72 m2. 3 logela. Bizitzen sartzeko moduan.

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk. DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 hilero.
- Atxondo: 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekokoak.
- Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela-jantokia eta komuna.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Kanpatorroseta: 3 logela. 70 m2-ko terraza. 28 m2-ko garajea.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

MALLABIA

- Trabakua: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela -jantzia, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

FU AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txaleta bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI


- Komentu kalea: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Montebideo: Halla, egongela-jantzia, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen plaza: Halla, egongela, jantzia, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Inazio auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 3 logela eta 1/2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia eskegitokia rekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillab: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Abadiño: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatzeko.
- Abadiño- Muntzaratz: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. Oso egoera onean dagoen etxebizitza. Eguzkitsua.
- Abadiño-Muntzaratz: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria oso egoera onean.
- Bedia: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berriztatzeko.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.
- Berriz: Halla, egongela-jantzia, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua eta etxe osoak kanpora ematen du.
- Elorrio: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekua eta garajea.
- Iurreta: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Jantzia eta berrikuntza askorekin.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbarekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€+ BEZ
- Tabira: Eraikuntza berria. AZKENEKO ETXEBIZITZAK.
- Pagasari kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Berriz eta Zaldibar: Etxebizitzak salgai. Deitu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
- Abadiño, Muntzaratz eta Elorrio: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Durangaldea: Baserriak, txaletak, pabiloiak eta garajeak hainbat lekutan, salgai edo alokairuan.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Balkoia.
- Alluitz - Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Txibitena - Landako: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- Zumalakarregi - Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
- Zumalakarregi - Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Ezkurdi: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
- Askatasun etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan Itziarri: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Askatasun etorbidea: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Tabira: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 balkoi.
- San Inazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

DENPORAPASAK >

		Zuhaitz mota	Zuhaitz-gaia	Nau
		Lohi	*Irudiko hondartza	
		Zaude		
		Estualdia		
Ez positiiboak	Azal			
Lanak	Ibarra			
Sua			Bokala	
Baldarra			Aitona	
				Giltzak
... gabe, atertu gabe			Pilota zokoan	
Leherkari mota			1002	
Prezioak				
Harrapazan!				
		501	Begira	
		Nori atzizkia	50	
Jardun		Gauerokoa		
Eguzkiak		Potasioa		
			Nor atzizkia	

1

	2		8		7
	5			6	2
		2	7	1	4
9			1		
8				4	7
	5	7	2	6	
	9	4			
	3		8	5	9
5	6	9	3	8	

2

			3	2	8
	8				7
7	5				9
	2	5		7	
8	7	4			
			6	3	
				8	2
			4		6
1	9				

HOROSKOPOA >



Aries

marxoak 21 - apirilak 20

Urduri ibiliko zara aste honetan, eta gauzak ez dira zuk nahi bezala irtengo. Zerbait egin aurretik pentsa ezazu.



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Faltan botatzen duzun pertsonarekin egoteko aukera izan dezakezu. Oraingoan telefonoa eskatu!



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Ezin denera heldu. Zerbait bidean utzi beharra dago eta denbora gehiago duzunean ekingo diozu berriro ere lanari.



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Zu bai zu, azkenean lortuko duzu pentsatzen zenuena. Buelta eman diozu egoerari, eta azkenean zu eta ingurukoak pozik daude.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Nahasmen handiko astea, ez sartu iskanbilatan, azkenean zuk eman beharko duzu-eta aurpegia. Zuk zeureari eutsi.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Dena ondo joango da aste honetan, ez duzu sorpresarik jasoko. Aprobetxatu zerbait ausarta egiteko, zortea izango duzu-eta.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Zurekin berba egitea ez da erraza izango egun hauetan. Beste mundu baten ibiliko zara, zure pentsamenduetan murgilduta.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Diru kontuekin ez zabilta oso fin, aste honetan gerrikoa estutu beharko duzu eta ahal duzun guztia aurreztu.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Jaramon egiten ez badizute ez du merezi horretan jarraitzeak. Zure bidea topatzeko zeure buruan bilatu behar duzu.



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Temati izatea komeni zaizu aste honetan. Zerbait nahi izanez gero, zuk zeuk lortu beharko duzu-eta. Zeure gaitasunetan sinistu.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Kirola egiteko hainbat aukera duzu inguruan. Aprobetxatu eta luzatu zure muskuluak. Osasuntsuago sentituko zara horrela.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Kantsatuta egongo zara aste honetan, ez dira gauzak zuk uste bezala irtengo.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta



Zorionak **Amama!** Urteak aurrera doazela diote baina zuretzat aspaldi gelditu zirela dirudi. Ia ortuko txokoan bazkaritxo bat egiten diguzun!



Oihanek joan zen domekan urteak egin zituen. Zorionak Garaiko familiaren partez. Kontatuko diguzu zelan pasatu zenuen asteburua, ezta?



Izarok asteburuan sei urte egingo ditu. Zorionak eta musu potolo bat gure etxeko printzesari Aiur, aita eta amak bidalita.



Abadiño herri eskolatik irten ginela 20 urte pasatu dira, baina oraindik ere urtero elkarzten gara afari bat egiteko 76an jaiotakoak.



Zorionak **Usue!** Ekainaren 7an bederatzi urte egingo dituzu. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Ondo pasatu etxeko danon partez.




Iker Iturriagak, bihar, ekainaren 5ean, bi urte egingo ditu. Zorionak eta musu potolo bat etxeko guztion partez.



Luisek urteak egin zituen asteazkenean. Zure ile zuria ez doa bat zure adinarekin. Ea noiz ospatzen dugun afari gozo batekin. Zorionak.



Liher eta **Enarcak** ekainaren 14an lau urte egingo dituzte, eta osaba **Andonik** ia ia berrogei. Zorionak familiaren partez.



Zorionak lehengusina pare honi! **Anek** zapatuan 13 urte egingo ditu eta **Luciak** 8 egingo ditu astelehenean. Ondo pasatu eguna bikote familia osoaren partez.



Illanek martitzenean urtetxo bat egin zuen. Zorionak argazkian zurekin agertzen den anaia Martin eta baita lehengusu Oier, izeko, osaba eta familia osoaren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zuntza eta Mugikorra, azkenean elkarrekin



Euskaltelen Pribilegio Plana

Zuntza badaukazu eta Mugikorra kontratatzen baduzu, **hilean 6 €-ko deskontua** izango duzu Zuntzaren fakturan. Betiko.

 zuntzOptikoa

Zator Euskaltelen saltokira

6 €-ko deskontua Zuntz Optikaren linearen hileko kostan. (BEZa hartuz) Zuntz Optikoa 2 M-ko edo horik gorako Bantia Zahararekin daukaten bezeroentzat. baldin eta etorki ondoren orrlaintzeko mugikorra Unika 15 Tarifamir edo horik gorako batelari kontratatzen badute. Sustapenari 2010eko uztailaren 31 arte balio du.

"Zaletasunak euskaraz bizitzeko aukera eskaini gura dugu"

AEK-ren barnetegi ibiltariak antolatzen 10 urte daroaz Joseba Irazabalek. Bizikletaz eta oinez ibiliko dira aurten

Mendia eta bizikleta maite ditu Joseba Irazabalek. Euskaltzalea dugu, urteak daramatza AEKn. Euskara eta kirola batzen dituen barnetegiak antolatzen dabil momentu honetan buru-belarri.

Zelan sortu zen barnetegi ibiltaria?

Udako ohiko barnetegiak maldan behera zebiltzala eta ideia berrien bila hasi ginen. Niri eta nirekin bulegoan zegoenari asko gustatzen zaigu mendia, eta pentsatu genuen euskara praktikatzeko leku baten geldi egon barik ona izan ahal zela bizikletaz horrelako ibilbide bat egitea.

Jendeari kuriosoa egingo zaio zuek lako talde bat ikustea.

Herri txikietan batez ere oso ondo hartzen gaituzte. Arantzan, Urepelen, Garraldan... helmuga modukoak ipini eta sariak ematen dituzte... eta polita izaten da. Jendeak pozik hartzen gaitu, tropeltxoa ikusten du, eta ekintzak egiten ditugun herrietan oso giro ona egoten da.

Otxandion ere egoten zarete.

Udalak igerilekuak utzi dizkigu orain arte, eta asko eskertzen dugu deskantsua. Aurten gauza gehiago antolatu ditugu. Diapositibak jarriko ditugu, hitzaldi bat izango dugu, poteotxoa egingo dugu, eta Otxandio Berbalaguneko lagunekin ere egongo gara. Bezperan masaje ikastaroa izango dugu, fisioterapeuta batez. Garraldan ibilbide bat egingo dugu hango historia ezagutzeko... jendeak eskaini egiten dizkigu ekintzak, eta oso gustura gaude.

Gauza bitxi asko izango dituzu kontatzeko.

Bai, asko dauzkat buruan. Oso atsegina bat. Bizikletazko barne-

tegian urtero Opakuangeratu izan gara. Duela urte batzuk han akanpada jarraian egiteko leku bat zegoen. Guk txoko baten sua egin eta gitarragaz kantatzen ibiltzeko ohitura genuen. Lehen urtean Hernani aldeko familia bat gehitu zitzaigun. Hurrengo urteetan ere harrera polita egin ziguten. Urte baten, furgonetagaz heldu ginean han ikusi genituen, baina ikaratu, eta ospa egin zuten. Harritu egin ginen. Gauean bueltatu ziren berriro, pastel batez. Kontua da biharamunean helduko ginela koan sorpresa hartu zutela gu han ikustean.

Etapagorrrak dira?

Gehienak n a h i k o e r r a z a k dira. Etapa b a t e n Otxandiotik Anbotora joango gara, eta h a n d i k L e i n t z Gatzagara. Furgoneta ere badaukagu, eta baten batek gura badu, bidea saihestu dezake; eta, adibidez, Anbotora ez igo. Dena dela, horrelakoetan ikusi dugu jendeari furgonetaren aukera emanda ere, ez duela gura izaten. Erronka modukoa da. Egunkaz, ezagutzen ez dugun zati bat egiten ibili gara, eta Lekunberri ingurutik Gorbeia eta Hiru Erre-

ge Mahaia ikusi ditugu. Ibilbide erditik nondik gatozen eta nora goazen ikustea oso polita da.

Korrikaren antza dauka. Han ere ibiltzen zara zu, furgonetan

Bai, eta ez dakit kasualitatea den, baina antolatzaile guztiak ibili gara Korrikan. Antza dauka, baina desberdina ere bada. Korrikan, furgonetan, atzera begira gabiltza eta ez gara askotaz e n t e r a -

tzen; barnetegian lasaiago gabiltza. Zazpi korrikatan ibili naiz, eta gauza berezia da. Harrapatu egiten zaitu. Han ibiliko naiz bota arte.

Aurten oinezko barnetegian ibiliko zara. Bizikleta faltako duzu!

Bai, pena emango dit! Baina, tira, barnetegiaren ostean bizikletaz bidaia luzeago bat egingo dut; Finlandiara noa hile birako.

Klasetik kanpoko jarduerak hauek ikasleentzako plusa dira?

Hori baino gehiago. Askokez dute euren zaletasunak euskaraz bizitzeko aukerarik. Barnetegian koadrila egiten dute, eta askok diote eskolak baino eragingarriagoa dela hau. Beste barnetegiaren ere loturak egiten dira, baina desberdina da. Han taldeak egitea normalagoa da. Ibiltarietan denak batera joaten dira. Ondo dabilena bizikletaz txarto dabilenari bultzaka joaten da atzean; konplizitate sortzen da.



Joseba Irazabal •

AEKn dabil lanean, duela 20 urte baino gehiagotik

Otxandion bizi da



Jon Artza
Soziologoa

Guraizeak ala jostorratza

Askotariko jendea sartzen da Patxiren Tabernan. Krisia dela eta bezeroak kezkatu samar dabilzala esan dit. Eguerdian fabrikako langileek eta igeltseroek ardo batzuk elkarrekin hartzen dituzte. Hauek esaten dute administrazioan langile asko dagoela, kolpe zorrik jo gabe dirutza irabazten dutenak. Soldata jaisteaz gain, asko eta asko etxera bidali behariko lituzketela. Arratsaldean Mikel eta Ane kafea hartzera etortzen dira, beraien alaba eskolatik irten zain. Hauek plazarik gabeko irakasleak dira eta beraien aurpegietan zoriona eta kezka somatzen da. Bigarren haurra bidean dago baina diruz justu dabilzta. Hauek enpresari eta autonomoen irabaziak moztuko lituzkete. Uste dute, irabazten dena baino askoz gutxiago aitortzen dela eta hor behar direla benetako artaziak. Denek, ordea, bat egiten dute etorkinak kritikatzeko orduan. Eguerdian pintxoak jatera etortzen den ertzain bikoteak ere gauza bera dio, gehiegi daudela eta kontrolaezinak direla. Etorkin gajoak ordea nahikoa du, erdi gaztelaz erdi euskaraz, bere galtzerdi eta gerrikoak saltzearekin. Lehen CDak saltzen zituen, baina beldur da SGAEko agente sekretu batek ez ote duen atxilotu eta Burkina Fasora deportatuko.

Patxi dio, guraizeak ez ezik jostorratzak ere behar direla. Diru-laguntzak behera doazen honetan gizarte zibilak behar duela protagonismoa hartu, eta denon artean justizia soziala ardatz duen soinekoa josi behar dugula. Barraren beste aldean, gaur ni bilakatu naiz tabernari, adi entzun eta arrazoa eman diot.



• **TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen du.

• **CAP ikastaroak profesionalentzat**

• **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO